



Lanean bizitzaren amaiera argitzeko

Hainbat faktorerengaitik, zainketa aringarriak ezezagunak dira oraindino, baina beharrezkoak dira bizitzaren azken faseari beste modu batean ekiteko. Leire Lazpita zaldibartarra eta Alazne Belar atxondarra zainketa aringarrien alorreko langileak dira. • 2-3



Harrobia zena artea sortzeko gune da gaurtik

Mañariko Angurreta harrobi abandonatuari bigarren bizi bat emango diote bertan artea sortzeko gune bat ipinita. Gaur egingo dute inaugurazio ekitaldia. Kanthoria taldeak emanaldia eskainiko du. • 24



Elorrio
2021

 **DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA**
CEPA DURANGO HHI
Doako irakaskuntza ofiziala

Laubideta kalea, 6 DURANGO · Tel.: 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net



- Atzeritarrentzako gaztelania ikastaroak.
- Hasierako irakaskuntzak.
- DBHko graduatua
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak
- Informatika eta ingeles ikastaroak.
- ERDI MAILAKO zikloetarako sarbide probak





MATRIKULA ZAITEZ - 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net

MATRIKULA-EPEA:
Irailaren 1etik 17ra arte
Matrikula egiteko ordutegia: Asteleheneretik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00
Ostiraletan: 09:00-13:00

Zainketa aringarriak, tunelaren amaierako argiari kolorea emateko asmoagaz

Bizitzaren azken uneetan ere bizi ahal izateko, funtsezkoak dira zainketa aringarriak. Gaixoaren eta inguruko beharrez arduratzen dira, sufrimendua arintzen saiatuz eta bestelako arreta eskainiz, besteak beste. Formakuntzan edo arlo profesionalean dauden hutsuneak eta heriotza oraindino tabu izateak eragina dute gizartearen ezezagutzan



Leire Lazpita Berasaluce

Erizaina

ZALDIBAR | 1993

Leire Lazpita erizaina, Galdakaoko ospitalean.

ERREPORTAJEA • ARITZ MALDONADO

Nork ez du sekula ere imajinatu zelakoa izango den bere heriotza? Edo nork ez du pentsatu zelakoa izatea gustatuko litzaiokeen? Bizitzaren amaiera sufrimenduagaz edo minagaz lotzera jotzen dugu, baina modu desberdinak daude hiltzeko. Hil zaitezke minez eta bakarrik, hileetako sufrimenduaren ondoren, edo ohean etxekoek inguratuta. Horra hor adibide desberdin bi. Bizitzak muga bat du, amaiera

bat, baina zukutu egin daiteke amaierara arte. "Gaixotasun bat itzulezina denean, hil arte itxarotea besterik ez dagoela ematen du, baina hori ez da horrela. Hil artean, bizirik gaude, eta gauza asko egin daitezke oraindino ere, oso gauza ederrak bizi daitezke fase horretan ere. Horretarako, garrantzitsua da pertsona erdigunean ipintzea eta hainbat eremutan lan egitea. Izan daiteke sintomen aldetik lantzea, edo familiagaz zerikusia dutenak

lantzea. Azken fase horrek iluna izan behar duela pentsatzen dugu, baina izan daiteke kolore askodun fase bat ere", azaldu du Alazne Belar erizain atxondarrak. Erizaina izateaz gainera ikerlaria ere bada, eta, hain zuzen ere, zainketa aringarriek bizitzaren amaieran duten eragina ikertzen du, besteak beste, Nafarroako Unibertsitatean.

Zainketa aringarriak sedazioagaz lotzen dira, baina hori baino helburu anbiziotsuagoa dute

Zainketa aringarriak sedazioagaz lotzen dira sarri, baina hori baino helburu anbiziotsuagoa dute. "Gaixoaren zaintza integral bat egiten dugu, ahalik eta bizikalitaterik onena eskaintzeko eta sufrimendua arintzeko, ahal den neurrian", laburtu du Belarrek. "Pertsonak dituen beharrezanez kasu egin, eta horietan oreka bat topatzea da zainketa aringarrien gakoa", dio Leire Lazpita erizain zaldibartarrak. Lazpitak Galdakaoko (Bizkaia) Ospitaleko Zainketa Aringarrietako Unitatean lan egiten du. "Zainketa aringarriak ez dira bizitzaren azken egunetarako bakarrik. Gaixotasun larri bat

agertzen den unean hasi gaitezke lanean gaixoaren bizi-kalitatea hobetzeko", gaineratu du Belarrek. Bide horretan, "aukera zabala" dagoela azpimarratu du Lazpitak ere: "Pertsonaren arabera izan behar du erabakiak. faktore asko daude: adina, egoera... Sufrimendua bera oso pertsonala da, eta batzuentzat aringarria dena beste batzuentzat ez da hala. Zainketa aringarrietan hori guzti hori kontuan hartu behar da, pertsona erdigunean ipinita".

Lazpitak Galdakaoko Unitatearen sorreran parte hartu du, eta pandemiak ibilbidea oztopatu eta zerbitzua aldi baterako bertan behera utzi duen arren, pozik dago jardunagaz. Azken sasoiaren zainketa aringarriekiko hautematea aldatu dela sumatu du. "Paliatibo berbak ez du oso harrera ona izaten; hala ere, gugaz berba egin eta gero, gaixoak eta senideak lasaiago geratzen dira. Pazienteek eurek erabaki behar dute euren bidea zelan egin. Gu laguntzarako sistema bat baino ez gara", gogoratu du Lazpitak. 2019an sortu zen unitatea, eta, Lazpitaren esanetan, urteotan 500 paziente baino gehiagogaz egon dira; osasun krisialdia tarteko, unitatea itxita egon dela kontuan hartuta, zifra ona dela deritzo. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako bost

ospitale handietako azkena izan da halako unitate bat sortzen. "Ospitalea gizartearen isla da eta heriotza tabua da hor ere, baita profesionalezat ere. Ez da erraza zainketa aringarri integralak eskaintzea langileak horretarako prestatuta eta trebatuta ez badaude. Orain gaia pil-pilean dago eta nabaritzen da. Pazienteek eta euren familiek gure zerbitzua eskatzen dute, eta langileen artean ere handitu ere egin da formakuntza eskaera", adierazi du.

Tabuak uxatuz

Ekainetik aurrera, Hego Euskal Herriko biztanleek bizitza noiz eten erabaki dezakete; eutanasia osasun sistemaren barruan erabili daitezkeen zerbitzua da. Heriotzaren gaia mahaigainean ipini da beste behin ere. Baina, beharbada, ikuspuntu praktikoko batez. "Heriotza gure bizitzetatik atera egin dugu eta honen testuinguru osoa medikalizatu baino ez dugu egin. Heriotza bizitzaren parte izango balitz lez biziko bagenu, aldea egongo litzateke", azaldu du Belarrek. Iritzi berekoa da Lazpita: "Eutanasiaren Legea indarrean sartzeak, telebistan ikusteak, heriotzari buruz gehiago berba egitea ekarri du. Honek ez du esan gura ehunka eutanasia eskaera egingo direnik, baina jendea kontzienteagoa izatea ekarri du, heriotza existitzen dela gogoratu digu". Erizain zaldibartarraren berbetan, COVIDaren agerpenak ere eragina izan du alde horretatik. "Lagundu egin du horretan. Heriotza bakarti eta krudel asko eragin ditu, asistentziarik bakoak; dolu txar asko ere eragin ditu, eta horrek kontzientzia puntu hori hartzen lagundu du, heriotza ere duintasunetik hartzeko", gaineratu du Lazpitak. Eta heriotzaz berba egiteak zaintza aringarrietan izan dezakeen eragin positiboa nabarmendu dute Belarrek eta Lazpitak. "Askotan, familiek okerrago pasatzen dute pazienteek eurek baino. Pazientea ondo egoteko, zaintzaileak ondo egon behar du. Baita familiakoek eta ingurukoek ere. Sentitu behar dute ez daudela bakarrik bide hori egiten. Nik beti esaten diet iraupen-lasterketa bat dela hau, egun onak aprobetxatzeko, eta egun txarrak ahalik eta bizkorren igarotzen uzteko", azaldu du zaldibartarrak.

Ezezagutza

Zainketa aringarriek berba egitekoan, pasioa sumatzen zaie langile biei. "Zainketa aringarrietan, bokaziozkoa ez den langile gutxi topatuko duzu bertan beharrean. Lan gogorra da, eta intentsoa, baina norbaitek egin behar du, eta hobe gustuko duen norbaitek egiten badu", dio Lazpitak. Hain zuzen ere, urteetako jardun horren aitortza jasotzen dabilta orain, profesionalek zein gizartearen aldetik. "Gure unitatearen zerbitzuak eskatzen

Eutanasiaren Legearen lehenengo onuraduna durangarra da

Eutanasiaren Legea ekainaren 25ean indarrean sartu eta egun berean, prozesua martxan ipintzeko eskaera egin zuen Durangoko familia batek. Horrela, 86 urteko emakume durangar bat izan da eutanasiaren bitartez hil den lehenengo pertsona Espainiako estatuan. ANBOTOK bere senide batez berba egin ahal izan du, eta prozesuan zehar osasun langileen aldetik jasoriko babesa nabarmendu du. "Asko eskertzen da. Sentimenduak lehenengo lerroan daude eta kudeatu egin behar dira. Prozesuan

hurbiltasuna, enpatia eta babesa sentitzea ezinbestekoa da bidaia naturaltasunez eta koherentziarekin egiteko", esan du. Heriotzaz berba egiteak duen garrantzia ere azpimarratu du: "Agian, bizitzari eta heriotzari buruzko hausnarketei ez diegu behar den besteko tarterik eskaintzen. Gaixotasun larri eta egoera sendaezin batean, esperantza bakarria heriotza denean, eutanasiak aukera bat eskaini ahal digu bidea erosoago egiteko". Uztailaren 23an hil zen 86 urteko emakumea, etxekoek inguratuta.

dituzte orain, geroago eta gehiago, baita langileek ere", esan du. Zainketa aringarriek ez dute espezializaziorik Hego Euskal Herriko fakultateetan, eta ikasgai modura ere ibilbide laburra dute. Osasun sisteman txertatzeko, hezkuntza sisteman txertatzea beharrezkotzat ikusten dute, beraz. "Jaiotzak baditu bere espezializazio propioak, emagin izatekoa, adibidez. Baina heriotzaren kasuan ez da horrela. Masterren eta ikastaroen bitartez trebatzen gara zainketa aringarrietan", azpimarratu du erizain zaldibartarrak. Lazpitak Bartzelonan egin zuen Zainketa Aringarrien masterra.

Hiltzea, desioa?

Unibertsitateko ikerketa lanak ere zainketa aringarriak osasun sisteman txertatzea errazten ari dira. Ikerketa lan horietan dabil Alazne Belar, hain zuzen ere; Nafarroako Unibertsitateak martxan duen Atlantes proiektuaren barruan. Nafarroako ospitale biko 200 gaixo elkarrizketatu ditu, eta zainketa aringarriak "berandu" aplikatzen direla da ondorio nagusietariko bat. "Zainketa aringarriak ez dira dena heldu, eta jendeak sufrimenduagaz lotzen du heriotza. Beldur handia dago bizitzaren azken etapa hori zelakoa izango den, eta hortik ondorioztatu daiteke, aurretik helduko bagina, sufrimendu eta beldur asko arintzea lortuko genukeela", adierazi du Belarrek. Pazienteekin egon eta gero, ondorioztatu du batzuen nahia sufrimendua amaitzea ere badela. "Gaixo askoren kasuan, 'hil egin gura dut' esatean, sufritzen dabilzala da benetan esan gura dutena. Sufrimendua fisikoa izan daiteke; mina, adibidez, baina izan daiteke sufrimendu existentziala ere; hau da, faktore karga bat sentitzearen modukoa, edo bizitzari zentzua galdu izanaren parekoa", azpimarratu du. Gaia "konplexua" dela uste du Belarrek, eta eztabaida "sakon" bat behar dela, "gizarte lez egin beharrek". "Badakigu heriotza errealitate bat dela, eta zelako gizartea gura dugun hausnartu behar dugu. Alderdi instituzionaletik, galdetu behar dugu ea zergaitik osasun sistematik ez duen nahikoa baliabide pazienteek eduki ditzaketen sufrimenduak arintzeko. Bestetik, norbanako modura arduratu beharko genuke, ea zelako gizartea gura dugun; hau da, benetan gura dugun gaixotasun larria duten pertsonak edo pertsona nagusiak baztertzeko dituen gizarte eredu hau", gaineratu du.



Alazne Belar Beitia
Erizaina eta ikerlarria
ATXONDO | 1988

"Askotan, 'hil egin gura dut' espresioaren atzean laguntza eskaera bat dago"

Alazne Belar erizain eta ikertzaile atxondarrak Nafarroako ospitaleko 200 gaixo elkarrizketatu ditu bere ikerketarako

ERREPORTAJEA • A.M.

Alazne Belar aditua da zainketa aringarrien alorrean. Nafarroako Unibertsitateak martxan duen Atlantes proiektuko kidea da eta zainketa aringarrien eta pertsonen duintasunaren gaineko gaiak ikertzen ditu. Horien jarduna zabalteaz eta gizarteratzeaz ere arduratzen da. Nafarroako Ospitaleko 200 gaixo elkarrizketatu ditu, hauek ulertu eta hobeto lagundu ahal izateko. Zainketa aringarriek sufrimendua arintzeko egiten duten ekarpena azpimarratu du, besteak beste.

Zainketa aringarrien balio ukiezinak aztertu dituzu.

Gaixotasun larria duten pertsonen hiltzeko duten gogoan sakondu gura nuen. 200 gaixo elkarrizketatu nituen, eta emaitza desberdinak ateratu ditut. Alde batetik, hil gura izateko esperientzia desberdinak daudela. Askotan, 'hil egin gura dut' espresioaren atzean, laguntza eskaera bat dago. Hiltzeko gogo desberdina den neurrian, gaixoak ezin dira berdindatu. Badago hiltzeko gogo bat automugatu dena, probokatzen duten faktoreak desagertu ahala joaten dena; elkarrizketatuen %11k gogo hori zuten, noizean behinekoa. Elkarrizketatuen %7k hiltzeko gogo iraunkoragoa zuten, ia egunerokoa. Baina hor bestelako nabardura bat dago:

guztiek ez zuten heriotza aurreratzeko gogorik. Aurreratzea gura zutenak elkarrizketatuen %1etik 2ra bitartean zeuden. Beraz, datu horiekin fenomenoaren konplexutasuna sakonago aztertu eta ulertu daiteke. Sentimendu hauen atzean, sufrimendu bat dago, izan daikete fisikoa, psikologikoa, soziala eta baita existentziala ere. Orokorrean, berandu ailegatzen

Garaiz ez heltzera, gatxagoa da pazienteari sufrimendua arintzea, motxila sufrimenduz beterik duelako, nekatuegi dagoelako egoeragaz

gara pazienteengana, jada asko sufritu dutenean. Ordurako, pazienteari sufrimendua arintzea gatxagoa da, motxila sufrimenduz beterik dutelako, eta nekatuegi daudelako egoeragaz.

Zainketa aringarriak berandu heldu dira, beraz.

Zainketa aringarriak ez dira dena heldu. Oinarritik hasita, gehitu behar da zerbitzu gutxi

dagoela, gainera. Europako Zainketa Aringarrien Batzordeak zerbitzu bi egotea gomendatzen du 100.000 biztanleko. Espainiako estatuan, 0'6 zerbitzu dago 100.000 biztanleko. Horrek zer dakar? Oso zerbitzu murriztuak edukitzean, horiek zentralizatuak dira, eta, ondorioz, jarraipenak oso berandu egiten dira; sarri, azken egunetara mugatzen dira. Zerbitzuak gehitu egin beharko lirake, gu [zainketa aringarriak] lehenago heldu ahal izateko. Aurretik ailegatuz gero, denbora edukiko genuke gauzak lantzeko, bai gaixoagaz, bai familiagaz, eta bizitzaren azken fase horri kalitate maila bat eman ahal izateko. Bizitzako azken fasean kalitatezko bizi maila bat edukitzea da zainketa aringarrien helburua, eta ez da lortzen ari. Askok dago egiteko horren inguruan.

Hainbat ikerketek diote zainketa aringarri goiztiarrek eragina dutela bizi-kalitatean, eta asko hobetzen dela antsietateari eta depresioari dagokienez, esaterako. Baina egun ditugun zerbitzuekin, ezin da. Profesionalak ere, gizarteak lez, tabutzat dute heriotza.

Badago nora begiratu zerbitzuak hobetzeko?

Pentsa, Espainian, medikuntzan ez dago espezializaziorik zainketa aringarrietan; erizaintzan ere ez, hemen beste asko ere falta diren arren. Austriara begiratu dezakegu. Han, 2'2 zerbitzu dituzte 100.000 biztanleko. Horrez gainera, medikuntzako eta erizaintzako fakultateetan derrigorrezko ikasgaiak dira. Gainera, zainketa aringarrietako espezializazioa

Europako Zainketa Aringarrien Batzordeak zerbitzu bi egotea gomendatzen du 100.000 biztanleko. Espainian 0'6 zerbitzu dago

ere badute. Zainketa aringarrietako estrategia nazional espezifikoak dute; hau da, paperetik harago, errealitatean txertaturik dago. Erresuma Batuan, 1'3 zerbitzu dute 100.000 biztanleko, eta Alemanian 1'1 100.000 biztanleko. Bietako medikuntza fakultateetan derrigorrezko ikasgaiak dira, eta espezializazioa ere badute. Badago nondik ikasi, beraz.

"Egoera lehengoa baino hobea da; jendea bueltatzen hasi da eta pelikula asko ditugu zain"

%35eko edukierak mugatu egin du zinema aretoen uda. Orain, egoera "beste itxura bat" hartzen dabilela dio Emilio Ferrerasesk



Emilio Ferreras, Durangoko Zugaza zinema aretoko arduraduna.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Ekaitzaren ostean barealdia datorrela dio esaera zaharrak eta badirudi zinema aretoetara horrelako zer edo zer etorri daitekeela. Zugaza zinemako Emilio Ferreras

arduradunak, behintzat, baikortasunez begiratu gura dio etorkizunari. "Ondo" ikusten du Eusko Jaurlaritzak merkataritzako eta kulturaguneetako edukiera %60ra handitzeko harturiko erabakia,

baina azpimarratu du edukiera horrek uda osoan egon behar zuela indarrean. "Neurri berria ondo hartu dugu. Espero genuen. Baina oraindino ez dugu ulertzen zergaitik jaitsi zen %35era kulturaren", gai-

neratu du. Horrek herritarrengan "eragin psikologikoa" izan duela iritzi dio Ferrerasesk. "Jendeak beldur moduko bat izan du. Zinemako edukiera %35ekoa bada, zerbaitegaitik izango dela pentsatuko zu-

ten. Beldur hori igarri dugu", azaldu du Ferrerasesk.

Abuztuko azken aste bietan zinema aretoa zarratzea erabaki zuen Ferrerasesk, baina atea berriro ere zabaltzea erabaki du orain. Alderik alde, eta gogotsu. Eguntan mugimendua igartzen dabilelako sektorean: "Egoera lehengoa baino dezente hobea da. Jendea bueltatzen hasi da. Estreinaldietako saila gure txarteldegia betetzen ari da. Pelikula asko dugu. Astean bospasei pelikula ematera helduko gara"

"Udazken aldean rockari buruzko dokumental sorta bat eskainiko dugu udalagaz elkarlanean"

esango nuke. Eta, jakina, edukiera handitzeak ere badu eragina film banatzaileen erabakietan", dio. Orain, Durangoko eta eskualdeko herritarrak bertaratzea baino ez da falta. "Udazkenari begira rock musikari buruzko dokumental sorta bat eskaini gura dugu, udalagaz elkarlanean. Kultura sailagaz ere ba-gaude hartu-emanetan. Euskarazko pelikula sorta bat eskainiko dugu goizetan. Marvelen estreinaldi bat dugu zain. Almodovarrena ere bai. Hau guztia beste itxura bat hartzen hasi da", dio Ferrerasesk.

San Faustoko auzo-taberna hartu gura duenak irailaren 15era arteko epea izango du eskariak HAZen bulegoan aurkezteko

DURANGO • EKAITZ HERRERA

San Faustoko bizilagunek bilgune bat berreskuratuko dute laister: frontoiko taberna, auzo-taberna. Durangoko Udalak lehiaketa publikora atera du lokalaren kudeaketa, eta epe bat ipini du negozioa hartu gura duten hautagaiek eskariak aurkeztu ditzaten. Interesdunek irailaren 15era arteko epea dute dokumentazioa Herritarrentzako Arreta Zentroan entregatzeko. Etorkizuneko kontratuaren irau-

pena urte bikoia izango da gehienez, baina iraupen hori beste urte bi ere luzatzeko aukera egongo da, udalaren berbetan. Dena dela, eztingo du lau urteko iraupen muga pasatu. Lizitazioaren oinarritzako kanona 550 eurokoa izango dela aurreratu dute.

Interesdunek instalazioak bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute. Udalak bisita bat antolatu du irailaren 7rako. 12:00etan izango da eta bertara joateko ezin-

bestekoa izango da aurretiaz izena ematea, eperez@durangokiolak.net helbidean.

Udal gobernu taldeak "herrigunetik haratago" doazen baliabideak eskaini gura ditu. Agintarien berbetan, "ezinbestekoa da auzoek euren jarduerak garatu ahal izateko". Hori dela eta, "oso pozik" daude San Faustoko bizilagunentzat gune hori berreskuratzeaz. Iaz hainbat eraberritze lan egin zuten tabernan.



San Faustoko taberna berrituak honako itxura hau hartu du.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko irailaren 3a
19. urtea - 860. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabari.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

LAGUNTZAILEAK

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Durangoko jaiak bertan behera utzi dituzte eta Jai Batzordeak lasaitasunez jokatzeko deia egin du

Aurten ere ez da San Fausto jairik ospatuko Durangon. Dena dela, udalak, herriko elkarteek eta Jai Batzordeak programazio kultural bat eskainiko dute udazkenean zehar. Egitaraua irailaren 18an hasiko da eta hile bi iraungo du



2019ko jaietako txupinazoan ateratako argazkia.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Aurten ere ez. Ez da posible izango. Pandemiaren bilakaera hobera egiten dabilen arren, Durangoko Udalak, Jai Batzordeak eta Txosna Batzordeak ez dute jairik antolatuko aurten. San Faustorik ez aurten. Patxikotxuk zein Pantxikek beste urtebete itxaron beharko dute Durangoko kaleetara bueltatzeko.

Dena dela, horrek ez du esan gura herrian alaitasunik falta denik. Udalak, Jai Batzordeak eta herriko eragileek Kulturaro egitaraua antolatu dute udazken honetarako. Programa irailaren 18an hasiko da eta hile bi iraungo du. Durangoko Udalak oraingo ez ditu kultur eskaintzaren xehetasun guztiak eskaini, baina aurreratu du Izaro, Ene Kantak eta Mikel Urdan-

garin arituko direla emanaldiak eskaintzen. Behin betiko egitaraua irailaren 9an aurkeztuko du. Horrez gainera, kaleak alaitzeko asmoz hainbat musika, antzerki eta dantza ikuskizun egongo dela aurreratu du udalak: "Pandemia hasi zenetik, Durangon erakutsi dugu Kultura segurua dela, eta Kulturaren bitartez durangarrok badakigula gozatzen eta ondo pasatzen. Bide horretan sakonduko dugu, beste aurrerapauso bat emanez", azaldu dute udal iturriek.

Lasaitasun mezua

Jai Batzordeko kideek lasaitasun mezua bat helarazi diete durangarrei: "Patxikotxu eta Pantxike gure zain daude, baina datorren urtean emango diegu merezi duten ongi-torria. Jarrai dezagun geure burua eta gainerakoena zaintzen". Iaz ere ez zen San Fausto jairik ospatu Durangon. Udalak dispositibo berezi bat prestatu zuen, jaiegunei loturiko egunetan ohikoa baino jende gehiago antzematen bazen, herriko sarrera-irteerak zarratzeko.

'Labur esanda' film laburren lehiaketa bueltan dator, 300 eta 100 euroko sariekin

Berbarok lehiaketa antolatzen duen bigarren aldia da. Irailaren 10ean eta 11n egingo da, San Agustinen



Iaz jokaturiko lehiaketaren une bat, Plateruena Kafe Antzokian.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Ondo pasatzeko gogoia, euskaraz sortzeko grina eta umore dosi bat. Lehiakideek osagai horiek beharko dituzte *Labur esanda* txapelketan parte hartzeko. Berbarok euskara elkarteak film laburren lehiaketaren bigarren edizioa antolatu du. Lehia irailaren 10ean eta 11n egingo da, San Agustin kulturgunean. Parte hartzaileek 24 ordu izango dituzte film labur bat grabatzeko eta entregatzeko. Irailaren 10ean, barikuan, 16:00etan, emango diote hasiera atzera kontaktari. San Agustinen bertan emandako gai bat, objektu

bat eta esaldi bat erabili beharko dituzte filmean zehar. Gero, bideoak entregatu eta gero, irailaren 11n, lan guztien emanaldia eta sari banaketa egingo dituzte. Gaueko 22:00etan izango da hori. Berbarok aurreratu du aurten hiru sari egongo direla: 300 euroko saria irabazlearentzat, eta 100 euroko beste sari bi gainerako finalista bientzat.

Lehiaketan parte hartu gura dutenek laburesanda@berbaro.eus helbidera idatzi beharko dute. Emanaldiak sarrerak zapatuan bertan eskuratu ahaliko dira, 20:00etan, San Agustinen bertan.



CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL

ZORNOTZA

LANBIDE HEZKETA IKASTETXE INTEGRATUA

Euskadi, auzolana, bien común



Hasiera 2021ean!!!

LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK			
LANBIDE K.	IKASTAROA	ORDUAK	HASIERA
GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZUAK			
OC21480072	Higiene eta elikagai-arretako esku-hartzeak erakundeetan (MF1017_2)	70	Iraila
OC21480023	Arreta soziosanitarioko esku-hartzeak erakundeetan (MF1018_2)	70	Urria
OC21480024	Laguntza psikosoziala eta harreman eta komunikazio-arreta erakundeetan (MF1019_2)	130	Azaroa
OC21480069	Mendekotasuna duten pertsonen laguntza soziosanitarioa ematea gizarte-erakundeetan (SSCS0208)	370	Urria
FABRIKAZIO MEKANIKOA			
OC21480025	Karbono-altzairuzko TIG soldadura (UF1626)	90	Urria
OC21480070	Altzairu herdoilgaitzezko TIG soldadura (UF1627)	90	Azaroa
PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK			
Langabetuak (praktikak enpresan)			
21480020	Ekipo industrialaren mantentze lanak eta muntaketa mekanikoa (IMAQ0108)	510	Urria
21480019	Mendekotasuna duten pertsonen laguntza soziosanitarioa ematea gizarte-erakundeetan (SSCS0208)	370	Urria

Informazioa eta izen ematea:
www.lanbide.euskadi.eus (Prestakuntza, Kodea)

OHARRA: Taldeak sortu ahal, hasiko dira ikastaroak.



2008

Urritxe auzunea, z/g · Tfno: 688 665 300 · 946 730 251
48340 AMOREBIETA-ETXANO (Bizkaia)
e-mail: maranburu@fpzornotza.com · www.fpzornotza.com



Elorrioko musika eskola.

Lapurretaren ostean, ikasturte hasiera prestatzen dabilta Elorrioko Musika Eskolan

Ikasturte akademikoa irailaren 8an hastekoa da eta egoera bideratzeko lanean dabilta

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abuztuaren 22tik 23rako gauean lapurrak sartu ziren Elorrioko musika eskola barrura, eta instrumentu ugari eraman zuten bertatik. Osturiko guztia eta horren balioa kalkulatzeko lan gaxa den arren, Maria Herrero alkateordeak azaldu zuen lapurrek askotariko elementuak eraman zituztela: tronpetak, tronboiak, saxofoiak, gitarrak, bibolinak, trikitiak, anplifikadoreak, ... denarik. "Pianoa, bateria eta txirula batzuk salbu, gainerako guztia lapurtu dute; baita ordenagailu

eramangarriak, material akademikoa eta kafe-makina ere", azpimarratu zuen Herrerok. "Lapurreta honek disgustu handia eragin digu. Ederra egin digute", gaineratu zuen.

Harrezkero, Elorrioko Udala lanean dabil egoera lehengora bueltatzeko. Aseguru etxeagaz hartu-emanetan dabil, gertaturikoa oztopo izan ez dadin ikasturteari behar den moduan ekiteko. "Ikasturtea irailaren 8an hastekoa da eta ordurako dena prest izatea espero dugu. Aseguru etxeagaz lanean gabiltza eta ahaleginduko

gara zerbait lortzen. Bien bitartean, musika eskolako diru poltsagaz zerbait erosiko dugu, oina

Udala aseguru etxeagaz hartu-emanetan dabil, gertaturikoa oztopo izan ez dadin ikasturte hasieran

rrizkoak diren musika tresnak eta abar. Hortik aurrera, egoera kudeatu beharko dugu", adierazi du Herrerok.

Emakume elorriar bati eginiko sexu erasoak salatu dute

Elorrioko Udaleko kideek jakinarazi dutenez, orain egun batzuk gertatu zen emakume elorriarraren aurkako erasoak

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak jakinarazi dutenez, emakume elorriar batek sexu eraso bat jasan zuen orain egun batzuk. Berria jakin bezain laster, udalak jarduera-protokoloa martxan ipini du eta modu koordinatuan ari dela lanean jakinarazi dute, emakumearen eta haren ingurunearen borondateari lehentasuna emango dion erantzun instituzionala prestatzeko.

"Azken eraso honek izugarri kezkatzen gaitu eta irmotasu-

nez salatzen dugu", adierazi dute Elorrioko Udaleko Bozeramaile Batzordeko kideek ohar bateratu batean. Gainera, betiko moduan, biktimari eta haren inguruari laguntza oso eskaini gura dietela jakinarazi dute, eta biktimari udal errekurtso guztiak eskainiko dizkiotela azaldu dute. "Erasotzaile orok jakin behar du emakumeenganako indarkeria mespretxatzeaz gainera, ez dugula erasorik onartzen, ez gure herrian ez inon", jarraitu dute.




Elorrioko Udalak adierazpen bateratua adostu du.

Uztail amaieratik bizikletak garbitzeko gune bat dago Atxondon

Udaletik jakinarazi dutenez, iazko aurrekontu parte hartzaileetan jasoriko proposamenetarikoa bat da, eta, guztira, 8.000 euro ipini dituzte lan horiek egiteko

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Uztail amaieran, bizikletak garbitzeko gune bat inauguratu zuten Atxondon, pump-track pistaren ondoan. Atxondoko Udaletik jakinarazi dutenez, iazko aurrekontu parte hartzaileetan jasoriko proposamenetarikoa bat da hau. "Gure helburua atxondarren eskariei erantzuten jarraitzea da. Behin baino gehiagotan esan digute Atxondon horrelako gune bat behar zela bizikletak garbitzeko, eta uste dugu pump-track zirkuituaren ondoan kokapen egokia duela", azaldu zuen Xabier Azkarate alkateak. Lanok 8.000 euroko aurrekontua izan dute.



Bizikletak garbitzeko gunea pump-track pistaren ondoan ipini dute.

50.000 euro Berrizko udaletxe inguruan komuna egiteko

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Uztail amaieran eginiko osoko bilkuran, gerakinetik 995.000 euro aurrekontura pasatzea erabaki zuen Berrizko Udalak. Hainbat partida herrian hobekuntzak egiteko erabiliko dute. Esaterako, 50.000 euro udaletxe inguruan komun publiko bat egiteko erabiliko dute, eta beste horrenbeste Berrizko auzoguneetan dauden buzoiak eraberritzeko. Bestalde, 30.000 euro erabiliko dituzte eskola aurrean markesina bat ipintzeko.

Gerakinetik aurrekontura pasatutako diruagaz kultur etxeko zorua eta argiztapena ere aldatuko ditu Berrizko Udalak, eta nagusien egoitza berrirako ere ipiniko dute diru atal bat.

Gaur gauean kaleko zinema emanaldia eskainiko dute Mañariko plazan

MAÑARIA • J.D.

Kaleko zinema emanaldiak udako azken-aurreko emanaldia izango dau gaur Mañariko plazan. 22:00etan *Intouchables* izeneko film frantziarra eskainiko dute. Izaera eta jatorri desberdineko pertsona biren arteko hartu-emanak kontatzen du filmak. 2011n estreinatu zenean arrakasta handia izan zuen eta aretoetan dirurik gehien batu duen Frantziako bigarren filmak izaten jarraitzen du.

Aurten, udaletik lehenengoz antolatu dituzte kaleko zinema emanaldiak. Aurtengo lehenengo emanaldiak harrera ona izan zuen eta bigarrena bertan behera utzi behar izan zuten, euriagaitik. Gaurkoaren ostean, beste emanaldi bat geratuko da, *Erlautza* izeneko filmarena.



Ostalaritza gida

 **Durango**



OIERDI
Herriko gudarien 8, DURANGO
Tel.: 946 129 824
Gosari eta pintxo aukera handia giro ezin hobean.

 **Iurreta**



GAUARGI
Dantzari Etxetaldea, IURRETA
Tel.: 944 356 674
·Gosariak, pintxoak, molleteteak, rabak, errazioak eta askotariko tortilak enkarguz,...

 **Durango**



AI AMA
Joxe Miel barandiaran 2, behe, DURANGO
Tel.: 946 232 240
Gosaldu bazkaldu zein afaltzeko aukera. Gozo eta osasuntsu gainera!

 **Abadiño**



ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790
Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.

 **Durango**



MIKELDI TABERNA
Kalebarria, 7 - DURANGO
Tel.: 944 073 988
Gosari eta pintxo aukera handia giro ezin hobean.



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**



Urigoitiaren eta Garateren horma irudiak kendu dituzte

Udalak EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia kritikatu du. "Sententziako arrazoiekin ez gatoz bat", esan dute

OTXANDIO • J.D.

Udalak Luzia Urigoitiaren eta Ruben Garateren inguruko horma irudiak ezabatu zituen uztaile amaieran, EAEko Justizia Nagusiaren epai bati jarraituta. Urigoitiaren horma irudian "talde terrorista bateko kide bati eginiko omenaldia" ikusten zuen epaiak, eta Garaterenean "aukera ideologiko jakin batekiko atxikimendua".

EH Bilduk eta EAJk epaia kritikatu dute adierazpen baten

bitartez. "Sententziak ematen dituen arrazoiekin ez gatoz bat", jasotzen du testuak. Hurrengo pausoak ere zehaztu dituzte. Urigoitiaren kasuan, familiak giza urraketen biktima lez aitortzeko eskaeran lagunduko dute, eta Iñigo Iruin abokatuari kasua berriro zabaldu daitekeen aztertzeko eskatuko diote. Garateren kasuan, dispertsioaren biktima lez ofizialki aitortzeko eskatuko diote Jaurlearitzari.



Urigoitiaren horma irudia zegoen pareta, orain, hutsik.

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Soka-dantza apurka galtzen dabilena eta, dantza mota hau bistartzeko ekimena antolatuko dute zaturako, 19:30erako, Otxandioko plazan. Iurretako Eneko Abasolo eta Unai Esturo dantzarien artean sortu zen ideia, eta Otxandioko Urduri dantza taldekoekin egindako elkarlanari eskerrak gorpuztu da.

Zortzi herritako dantzariak batuko dira plazan. Batzuk Durangaldekoak dira: Iurretako dantzariak, Garaiko dantzariak, Berrizko dantzariak, Durangoko dantzariak eta Otxandioko Urduri taldea. Horiez

Herri batetik bestera soka-dantzan dauden barietateak ikusteko aukera egongo da

gainera, Iruñeko Duguna dantza taldeak, Eibarko Kezka dantza taldeak eta Bermeoko Alkartasuna dantza taldeak parte hartuko dute. Talde bakoitzak bere herriko soka-dantza eskainiko du, eta herri bateko dantzatik bestekora dauden barietateak ikusteko aukera egongo da. Esaterako, Otxandion emakumeen soka-dantza berreskuratu zuten orain urte batzuk. Ikerketa batek erakutsi zuen Otxandio-

Soka-dantza bistartzeko ekitaldiak Euskal Herriko hainbat talde batuko ditu bihar Otxandion

Eskualdeko taldeez gainera, Iruñea, Eibar eta Bermeoko dantza taldeak batuko ditu plazan egingo den ekimenak



Orain urte batzuk emakumeen soka-dantza berreskuratu zuten Otxandion.

ko andrek Iurretakoen moduan dantzatzeko zutela, baina desberdintasun batzuekin. Orain, modu horretara dantzatzeko dute.

Dantza ez da ekimeneko osagai bakarrik izango. Dantza saio batetik

bestera tarteetan musika saioak eta bertso saioak –Unai Iturriaga eta Miren Amuriza, Josu Zabalen musikagaz– egongo dira, besteak beste. Bizkaiko gaiteroek ere parte hartuko dute.



ELORRION, HURRENGO ERAIKUNTZA

Azkeneko biak!

4 gelakoak (143m²)

Terraza oso zabalak (106m²)

Garaje zabalak (37-86m²) + beste toki bat (28m²)

Lorategiagaz

Eraikinaren energia kalifikazio-etiketa: A

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com
Bixente Kapanaga 19, Iurreta



Hizkuntza Escuela Oficial
Eskola Ofiziala de Idiomas

Hizkuntza eskolan?

Bai. Ikasi euskara

Ja. Lernen Sie Deutsch

Oui. Apprenez le français

Yes. Learn English

Esperientzia handia

1994tik Durangon

Hizkuntzak

Euskara, alemana, frantsesa
eta ingelesa.

Mailak

A1 - A2 - B1 - B2.1 - B2.2 - C1

Orduak

Astean 4:30 ordu, egun bitan

Titulu ofizialak

A2 - B1 - B2 - C1

Prezioa

72,36 €
ikasturte osoa

Matrikula

ON-LINE

1. fasea: irailaren 1etik 17ra
2. fasea: irailaren 17tik 30era

PRESENTZIALA

Urriaren 20an

Talde erdipresentzialak – eskaintza

Alemana C1 - BERRIA
Euskara B2.2 - BERRIA
Euskara C1: 4 talde
Ingelesa B2.2: 3 talde

www.eoidurangoheo.hezkuntza.net
94 620 33 42 – 94 681 66 45





18 hilabete igaro dira zabortegia amildu zenetik.

Eusko Jaurlaritzak amaitutzat eman ditu Zaldibarko zabortegia egonkortzeko lanak

Hondakindegia dagoen lur eremua "egonkorra" dela eta ingurua "etorkizunean ere egonkorra" izango dela esan du Jaurlaritzak. 18 hilabete joan dira luizia gertatu zenetik

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA

Eusko Jaurlaritzak ohar batean jakinarazi duenez, amaitutzat eman ditu Zaldibarko hondakindegia egonkortzeko eta egokitze-lanak. Maiatzaren 14tik hona aritu dira lan horietan, Joaquin Beltran bilatzeko lanak amaitzea erabaki zutenetik hona. Besteak beste, hondeatze lanak egin dituzte zabortegiari eusten dion oinarrian zehar, eta aurrealdean dike gehigarri bat egin dute egonkortasuna bermatzeko. Jaurlaritzak azpimarratu du zabortegia dagoen lur eremua "egonkorra"

dela eta ingurua "etorkizunean ere egonkorra" izango dela. Estabilitatea kontrolatzeko neurketek halaxe frogatzen dutela gaineratu du. Bestalde, drainatze-sistemak instalatu dituztela gaineratu du, isurketak saihesteko.

Behin betiko itxiera

Hemendik aurrerako lanak hondakindegia zarratu osteko beharretara mugatuko direla aurreratu du Jaurlaritzak. Hau da, "ingurumen-baimen integratuan finkaturiko betebeharrak" eguneratzera. "Behin betiko zigitatzea, zabor-

tegia itxi ondoko mantentzea eta lixibiatuen tratamendua" hartuko dituzte kontuan, besteak beste.

18 hilabete igaro dira zabortegi-gertaturiko lur-jausiak Joaquin Beltran eta Alberto Sololuze beharginak harrapatu eta Eitzagako inguruetan ingurumen krisialdia sortu zenetik. Zaldibar Argitu plataformak gertaturiko guztia argitzea eskatu du denbora honetan guztian zehar. Plataformak Verter Recycling enpresako arduradunen epaiketan herri akusazio lez jardutea ere eskatu du, baina epategiak baztertu egin du eskari hori.

Dagoeneko 16 gazte atxilotu dituzte Zornotzako gazteari emaniko jipoiaz lotuta

Asteon 20 urteko gazte bat atxilotu dute Leioan. Epaileak aske utzi du deklarazioa hartu eta gero. Biktimari larri dago



Zornotzarrek protesta jendetsua egin zuten uztailean, azken hileotako erasoak salatzen.

ZORNOTZA • A.B./A.M./E.H.

Dagoeneko 16 dira joan den uztailaren amaieran Zornotzan gazte bat jipoitu izanagaz lotuta atxiloturiko gazteak. Azkena, asteon atxilotu du Ertzaintzak, Leioan. Poliziak Durangoko epaitegira eramanez gaztea eta epaileak aske utzi du, deklarazioa hartu eta gero. Orain arte atxilotuetariko zortzi adin txikikoak dira.

Jipoia uztail amaieran gertatu zen, uztailaren 24tik 25era bitarteko gauean. Zornotzako Jauregi-barria parkean mutil bat zaurituta zegoela jakinarazi zioten Ertzaintzari. Gau horretan bertan, gaztea konorterik barik eta larriki zau-

rituta artatu zuten Gurutzetako ospitalean. Ertzaintzak ikerketa bat ipini zuen martxan gertaturikoa argitzeko, eta ikerketa horren barruan kokatu ditu orain arteko hamasei atxilotuak. Ertzaintzak darabilen hipotesi nagusia da hainbat gazte talde antolatu modura jipoitu zutela gaztea.

Zornotzako herritarrek "ageraldi antimatxunoa" egin zuten uztail amaieran gertaturikoa gaitzesteko. Jendetza batu zen elkarretaratzean. Gazteari emaniko jipoia irmoki salatzeaz gainera, ekainean eta uztailean herrian izandako eraso matxista eta homofoboak salatu zituzten.

Abadiñoko komertzioak sustatzeko 1.950 bonu herritarren eskura

Udalak 50.000 euroko diru poltsagaz sustatuko du herriko salerosketa. Hiru bonu mota kaleratu dituzte

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Abadiñoko Udalak herriko komertzio sarea bultzatzeko kanpaina berria ipini du martxan. Asteon, 1.950 deskontu bonu ipini ditu herritarren eskura, herriko salerosketa sustatu guran. Hiru bonu mota kaleratu ditu. Alde batetik, kolore berdeko bonua. Bonu horregaz, 65 urtetik gorako herritarrek 30 euroko deskontua eskuratu ahaliko dute 40 eurotik gorako erosketa eginda. Bestetik, bonu arrosa dago. Berau lanik barik daudenentzat dago zuzenduta. Erabiltzaileek 40 euroko deskontua jasoko dute 50 eurotik gorako erosketan. Azkenik, bonu urdinak daude. Horiek 18tik 65 urtera bitartekoentzat dira. 5 euroko deskontua lortu ahaliko da 10 eurotik gorako erosketetan.

Abadiñar bakoitzak leku zehatz batean jaso beharko ditu bonuak, norbera bizi den auzoaren arabera: Zelaietan, Muntsaratzen, Mendiolan, Sagastan, Urkiolan, Gazteluan eta Amaiterminen bizi direnek udaletxera edo Mediate-

Abadiñar bakoitzak leku zehatz batean jaso ahaliko ditu bonuak, bizileku duen auzoaren arabera

kara jo beharko dute. Gerediagan, Traña-Matienan, Lebarion eta Astolan bizi direnek Errota kultur etxera edo Trañako udal bulegora. Bonuak eskuratzeko ezinbestekoa da beharrezko, agiriak aurkeztea.

Larreako kiroldegia urritik abendura arteko ikastaroen eskaintza berria aurkeztu du

Izena emateko epea irailaren 12ra arte dago zabalik. Zelaieta zentroan mantentze-gimnasia eskainiko dute



Larreako kiroldegiaren kanpoaldea.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Larreako kiroldegian, honako ikastaro hauek antolatu dituzte helduei begira: mantentze-gimnasia, egokitzen fisikoa, aquagym, GAZ (gluteoak, abdomena eta zangoak), comby, pilates, xunba eta spinbike. Horrez gainera, dantza modernoa eskainiko dute gazteentzat, eta igeriketa ikastaroak txikienentzat. Ikastaroren batean izena eman gura dutenek www.ametx.eus web orrira edo Larreako kiroldegira bertara jo beharko dute. Udalak jakinarazi du abonatuak lehentasuna izango dutela plaza eskuratzeko orduan.

Bestalde, 65 urtetik gorako herritarrek mantentze-gimnasia lantzeko aukera izango dute. Ikastaro hau Zelaieta zentroan eskainiko dute, urriaren 4tik aurrera. Saioak 12:00etik 14:00etara izango dira eta bakoitzak 30 minutuko iraupena izango du. Izena emateko epea irailaren 24ra arte egongo da zabalik. Hilaren 30ean, taldeen banaketa eta bakoitzaren ordutegia jakinaraziko dituzte.

Garaiko Landetxeak iazko arantzatxoa kendu du, uda honetan izandako harrera "oso ona" izan eta gero

Espainia hegoaldetik ailegaturiko bisitari ugari izan dute landetxean; Huelvatik eta Murtziatik etorritakoak, adibidez

GARAI • EKAITZ HERRERA

Udan, jende mugimendu dezente igarri dute Garaiko negozioetan. Turistak patxada bila etorri dira bertara. Lasaitasun bila, freskotasun bila. Garaiko Landetxean, behintzat, igarri dute joera hori. Bertako arduradun Jasone Gezuragak galdutzat eman zuen iazko

urtea, baina aurtengoak bestelako itxura bat hartu duela aitortu du. "Oso uda ona" izan dute, nahiz eta "mila kritika" egingo lizkiekeen bateko zein besteko "estatu eta gobernuai".

Aurrera egin dute. Eta lanik ez zaie falta izan. "Ekainetik irailera bitartean, beteta izan dugu lande-

txea, eta izan ditugun bisitarien profila oso aldatkorra izan da", azaldu du Gezuragak. Aurten, Espainiako hegoaldetik etorritako turismoa izan dute batez ere. "Murtziatik, Huelvatik etorritako jendea izan dugu. Madrildarrak ere bai, eta baita katalan ugari ere. Oso esker oneko bezeroak izan dira", dio arduradunak. Euskal Herriko bertako bisitariak ere izan dituzte. Hiru bikote euskaldun izan dituzte.

Denboraldiaren hasieran, landetxeko prezioak bere horretan mantentzea erabaki zuten. "Dirurik ez dugu egin. Uda salbatzea lortu dugu", azpimarratu du Gezuragak. Eta bisitariekin ere beste horrenbeste. Kunplitu dute. "Euskal Herria bisitatzeko aukera eskaini diegu. Oso pozik joan dira hemendik. Bete dugu gure funtzioa", dio.



Garaiko Landetxearen barrualdea.

Izurtzan ez dute jairik ospatuko eta, horren ordez, ekimen bi antolatuko dituzte

Irailaren 8an Ganso & Cia konpainiaren 'Babo Royal' kale antzerkia egongo da ikusgai Izurtzako plazan



IZURTZA • J.D.

Aurten ez dute jairik ospatuko Izurtzan. COVIDaren eraginez oraindino egoera ez dela "egokia" jaiak antolatzeko adierazi du Lorea Muñoz alkateak, eta gurago izan dute zuhur jokatu eta jaiak bertan behera utzi. Horren ordez, jaietako egunetan ekimen bi antolatzea erabaki dute. Lehenengoa irailaren 8ko eguaztenean izango da, Erdoitzako Andra Mariaren egunean, hain zuzen ere. Durangoko Ganso & Cia konpainiak Babo Royal izeneko umorezko kale antzerkia eskainiko du plazan, 18:00etan hasita. Burutik jota dagoen errege bat eta trobalari

bitxi bat dira ikuskizun honetako protagonistak.

Bestalde, irailaren 10ean, 19:00etan, Sun magoak bisitatuko du Izurtzako plaza. 1,2,3 Magia

Irailaren 10ean Sun magoak bisitatuko du Izurtzako plaza bere magia ikuskizunagaz

izena duen ikuskizuna eskainiko du. Ekimenak doakoak dira eta ez dago aurretik sarrera hartu beharrik.

Iurretan, emakumeek ere eraman dute prozesioan Goiuriako ermitako Ama Birjina, lehenengoz

Abuztuko lehenengo domekan jaisten dute Ama Birjinaren irudia Iurretako elizara, eta abuztuaren 15ean igotzen dute berriro

IURRETA • JONE GUENETXEA

Tradizioak etenik barik aldatzen dira eta horren adibide izan da aurten Iurretako Goiuria auzoan gertaturikoa. Bertako Andra Mari ermitako Ama Birjina emakumeek ere eraman dute prozesioan, lehenengoz. Abuztuko lehenengo domekan izaten dute hitzordua Ama Birjinaren irudia Iurretako Aita San Migel elizara jaisteko. Gero, abuztuaren 15ean, berriro ere Goiuriara igotzen dute auzokoak.

Orain arte, auzoko gizonezkoek eutsi diote Ama Birjinaren irudiari Goiuriatik Iurretako Aita San Migel elizara eginiko bidean. Emakumeak atzetik joan izan dira beti. Ohitura horrek etena izan du oraingo honetan Goiurian. Aurten,

auzoko emakumeek ere garraiatu dute Ama Birjinaren irudia bidearen zati batean.

"Proposamena egin digute eta baietz esan dugu. Emozio handiko momentua izan da"

"Emozio handiko momentua" Goiuria auzotik Iurretarako prozesioan parte hartu zuten emakume horietariko batek ANBOTOrri azaldutakoaren arabera, eurek eramateko proposamena egin zieten, eta baietz esan zuten. "Emozio handiko momentua izan da", zioen.



Goiuria auzoko emakumeak Ama Birjinaren irudia daramatela.

Binakako frontenis maratoiari buruz burukoa gehituko diote Mallabian

MALLABIA • J.D.

Mallabia kirol elkarteak frontenis maratoia antolatu du irailean 18tik 19rako astebururako. Iaz binakako txapelketak oso harrera ona ikusi zuela ikusita, —estatu osotik etorri ziren bikoteak— aurten buruz burukoa ere antolatzea erabaki dute. Oraingoz, dagoeneko 24 bikotek eman dute izena binakakoan, baina oraindino zabalik dago izen-ematea, 18 euroan. Bikote irabazleak 250 euroko saria irabaziko du. Buruz burukorako, 11 lagunek eman dute izena oraingoz, eta 8 euro da izen-ematea. Txapelkunak 100 euro jasoko ditu.

Binakako maratoia irailaren 18an jokatu dute, Mallabia I pilotalekuan, eta buruz burukoa hurrengo egunean, eskolako frontoian.

ANBOTOk antolatzen duen udako argazki lehiaketa azken txanpan sartu da

Argazkiak irailaren 19a baino lehenago ipini beharko dira www.anboto.org webgunean



Durangaldeko 2020ko argazki irabazlea.

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Zazpi urte pasatu dira ANBOTOk bere irakurleen argazkilari senari bide eman eta udako argazki lehiaketa antolatzen hasi zenetik. Aurten ere, arlo bitan aurkeztu daitezke argazkiak udako argazki lehiaketara: eskualdeko argazkirik onena eta eskualdetik kanpoko argazkirik onena.

Udako argazki lehiaketan parte hartu gura dutenek www.anboto.org webgunean ipini beharko dituzte argazkiak. Parte hartzaile

bakoitzak lau argazki aurkeztu ahal izango ditu gehienez, kategoria bakoitzeko bi, eta aurretik beste lehiaketetan saritu bakoak izan beharko dira. Argazkiok irailaren 19a baino lehenago igo beharko dira.

Sariei dagokienez, lau sari izango dira, kategoria bakoitzean bi.

Aurtengo udako argazki lehiaketan lau sari izango dira, kategoria bakoitzean bi

Eskualdeko argazkirik onenak smartbox bat irabaziko du, eta eskualdetik kanpokoak tableta. Bestalde, publikoaren sari bi ere egongo dira: Garai landetxean egonaldia eta Errigorako otzara.

Politikan

Garazi Errasti
Silloniz
EH-Bildu



Uda eta uda ostekoak

Abuztuaren bukaera heldu da, eta horrekin batera, oporren amaiera ere heldu zaigu. Aurreko ikasturte osoko estresa eta egonezina alde batera utzi, eta ikasturte berri hau ilusio eta gogo handiz hasi dugu.

Pandemia garaian konturatu gara zeinen beharrezkoa den barre egin eta pozik egotea. Eta aurten ere, egiaztatu dugu, kultura eta kultur ekimenak seguruak direla. Uda Kulturaz Blai ekimenari esker, Durangoko kale, txoko eta eraikinak ikuskizun eta espektakulu ugari bete ditugu, durangarrok pozik, entretenituta eta ohikotasunetik ihes eginda sentiaraziz.

Umeentzako tailerrak, antzerkia, musika, zirkua, dantza eta abar, adin guztietako pertsonentzako ekitaldiak. Hauek guztiak arrakastatsuak izan dira, edukieraren gaia kontuan hartuta, denetarik 4 %100ean bete dira eta beste guztiak %80rainoko okupazioa izan dute. Arte eta Historia Museoa izandako Regoyos pintore famatuaren erakusketa dugu honen adibide aipagarria, museoaren historian bisita gehien izan duen erakusketa izan baita. Horrela, margolari asturiarraren erakusketak Picasso, Dalí eta Dureroren erakusketetako emaitzak gainditu ditu.

Urte bi hauetan ikusi eta azalarazi dugu kultura seguru dela, eta horrela jarraituko dugu. Aurretik dugun irail honetan ilusio handiz, KulturAro era seguruan antolatu eta hurrengo izango ditugun ume, gazte zein helduentzat izango diren ekitaldiei forma emango diegu, gutxinaka hain presente dugun normaltasuna lortu arte.

Durangaldea asteen

Dario Regoyosen erakusketa Durangoko Museoko historiako bisitatuena bihurtu da

Durango | Dario de Regoyosen lanak batzen dituen Durangoko begirada inpresionista erakusketa Durangoko Arte eta Historia museoaren ibilbideko erakusketarik bisitatuena dela adierazi dute Durangoko Udaleko iturriek. Azken hiru hileetan, 3.292 bisitari jaso ditu museoak; 34 bisita gidatu ere antolatu ditu museoak.

Jaiegunetan mugatuta Sanagustinalde eta Barandiaran kaleetako trafikoa

Durango | Asteburu honetatik aurrera, jaiegunetan, Sanagustinalde eta Barandiaran kaleetako trafikoa mugatu egingo dute. Hau da, kale bi horietako espazioa oinezkoentzat, bizikletentzat eta bizilekua edo garajea bertan duten herritarrentzat baino ez da egongo erabilgarri. Horregaitik guztiagaitik, kale bi horietan bizi diren durangarrek alta eman beharko dute sistema berrian.

Durangoko Fashion Gauerako modeloak aukeratzeko castinga, irailaren 6an

Durango | Dendak Bai merkatari elkarteak modelo bila dabil irailaren 24an egingo duen Durango Fashion Gaueko desfilearako. Modeloak aukeratzeko castinga irailaren 6an izango da, 17:00etatik 20:00etara bitartean, Udal Euskaltegiko Berbagune gelan.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, ekimenean 18 urtetik gorako edozein pertsona parte hartu ahaliko du.



Karlos Ardanza abadiñarraren 'Mendi'-k Bizkaiko Ardi-txakur Txapelketa irabazi du

Abadiño | Karlos Ardanza abadiñarraren 'Mendi'-k Bizkaiko Ardi-txakur Txapelketa irabazi du. 354 puntu eskuratu zituen asteburuan Mungian jokaturiko txapelketan. Karlos Ardanzen 'Mendi'-k eta Enrike Mendiguren orozkoarraren 'Lai'a'-k ordezkaturiko dute Bizkaia irailaren 18an Garain egingo den Euskal Herriko txapelketan.

Mungiako txapelketan, hamabi txakurrek parte hartu zuten, tartean, Abadiñoako lauk: Karlos Ardanzen 'Mendi'-k, Kepa Ardanzen 'Urbi'-k, Jose Angel Azkorbebeitiaren 'Ekin'-ek eta Jose Migel Etxebarriaren 'Soli'-k.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#gomendioak

EURI ZITALARI ESKER
Itxaro Borda (Susar)

EZ DAKIT ZERTAZ ARI ZAREN
Ana Malagon (Elkar)

TAXIAK EZ DIRA INOIZ GELDITZEN
Xabier Montoia (Susar)

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu ☎ 686 214 964, % Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso

MAKALLAU saltsan® KONFIANTZAN

MAKALLAU SALTSANen bakailaorik onena eta osagai guztiak eskaintzen dizkizugu zure lapikoak arrakasta handia izan dezan: piper txorizeroa, baratxuri gorria, kalitate handiko olio eta abar.

Bakailao kozinatua ere aurkituko duzu, mota guztietan: pil-pil, bizkaitarra, ajoarrieroa, kroketa, bakailaoz betetako piperrak, etab.

Eta ez galdu Nafarroako kalitate-labeldun kontserbako produktuak: Zainzuriak, orburuak, piperrak, etab.

Enkarguak egiteko edo informaziorako, telefonoz edo whatsapp bidez gugaz kontaktuan jarri: 688 773 205 / 688 734 329

Bulegorako ziguiluak
Fotolitoak

Betikoak flexografía

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA



Kultur-zopa 2021

Kulturaz gozatu
Elkar zaindu dezagun



Elorrioko udala

Elorrio 2021

Irailak 4, zapatua

11:30 – 14:30 eta 16:00 – 19:00

Puzgarriak eta jolas parkeak Ganondon

19:00 – 20:30 Animazioa Ganondo parkean

Irailak 5 (Ferixa Eguna), domeka

10:00-14:00

Abeltzainak: Ferixalekuan

Ekoizleak: Aparkalekuan

Artisauak: Buzkantz kalean

Irailak 6, astelehena

19:30 Estutu eta The Lion Ganondo parkean

Irailak 10, barikua

19:30 Dupla eta Seletah 9mm Ganondo parkean

19:30 Lara Sagastizabal & Ana Sagastizabal: 'Sí, fueron ellas. Un paseo por la historia del Teatro Musical' Arriola Antzokian

Irailak 11, zapatua

19:30 Puro Relajo Ganondo parkean

Irailak 16, eguna

19:30 Euskadiko Orkestra Sinfonikoa elizan

Irailak 18, zapatua

19:30 Sugoi eta Segundo Traste Ganondo parkean



ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

**UNAI
GARAY**

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790 · unaigaray@yahoo.es



MAPFRE
ASEBURUAK ETA INBIERTSIKAK
SEGUROS E INVERSIONES


Vanessa Ruiz

946582448 679182536

vruizca@mapfre.com

Kanpokale 10, Elorrio

*ESTETIKA eta
TATTOO ZENTROA*



San Juan kalea, 23 behea 3

Tel.: 944 008 846 · anekestetika@gmail.com

CUMENOR

- Obra berria eta eraberritze integralak eraikinetan eta nabeetan
- Eraberritzeak estalki eta fatxadetan
- Obra proiektuak igogailuen instalaziorako eta arkitektura-oztopoak kentzeko
- Obren konponbideak komunitateetarako
- Lokalak gaitzea
- Urbanizazioak
- Mota guztietako obra eta proiektuak

INFORMAZIOA ETA
AURREKONTUA
KONPROMISORIK GABE

Ibaizabal k/ 1- 48260 Elorrio Bizkaia
info@cumenor.com - www.cumenor.com

Tel.: 946 215 677
Faxa: 946 462 931

CertifiedFirst
**AUTOGAIN
TALLERES**

TXAPA ETA PINTURA

San Agustin industrialdea
57 zk · 6 nabea
ELORRIO

Tel. - Faxes: 946 056 732
Mug.: 679 174 367
autogain@hotmail.es

Elorrioko 2021eko Kultur Zopa, herritarrei iraila gozatzeko sorturiko egitarau kultural zabala

Irailaren 4tik 18ra bitarteko egunetarako antolatu dute egitaraua; gustu eta adin tarte ezberdinetako herritarrentzako eskaintza da

KULTUR ZOPA • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Bigarren urtez, ez da Ferixa Nausikorik ospatuko Elorrion. Hala ere, jairik egongo ez den arren, egitarau zabala antolatu dute irailerako, 2021eko Kultur Zopa ekimenean.

Eskaintza zabala izango da eta herritar guztientzako ekintzak egongo dira irailaren 4tik 18ra bitartean. Umeentzako puzgarri eta jolas parkea ipinita ekingo diote egitarauari. Ganondo parkean izango da hori, irailaren

Umeentzako puzgarri eta jolas parkeagaz ekingo diote Elorrioko 2021eko Kultur Zopa ekimenari

4an. Biharamunean, irailaren 5ean, Ferixa Eguna egingo dute. COVIDaren aurkako neurriak dira eta, azokako postuak herriko zenbait gunetan sakabanatuta

egongo dira, udaletik jakinarazi dutenez. Hiru gune izango dira guztira: abeltzainena, ekoizleena eta artisauena.

Irailaren 6an eta 10ean, kontzertuak egongo dira Ganondo parkean. Astelehenean, 19:30ean, Estutu eta The Lion taldeak arituko dira, eta barikuan Dupla eta Selektah 9mm entzuteko aukera egongo da. Bestalde, Lara eta Ana Sagastizabalek *Sí, fueron ellas. Un paseo por la historia del Teatro Musical* lana antzeztuko dute Arriola antzokian. Bertan, antzerki musikalaren historiako abestirik esanguratsuenak abestu eta dantzatuko dituzte.

Irailaren 11n, 19:30ean, Puro Relajo talde nafarraren ranxerak entzungai egongo dira Ganondo parkean. Eta irailaren 16an, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa arituko da, elizan. Sugo eta Segundo Traste taldeen kontzertuekin emango diote amaiera Kultur Zopari.



Lara Sagastizabal eta Ana Sagastizabal.

ELKARTASUNA!

- ✓ Zuk, proposatu.
- ✓ Guk entzun egingo dizugu.
- ✓ Eta, aukeratu, elkarrekin.



Aukeratu 2022ko Kausa Solidarioak



GKE bat zara? Aurkeztu zure proiektua



 **EROSKI**
zurekin

“Azoka herrian dagoen ganadua erakusteko erakusleiho bat da. Polita izaten da parte hartzea”

Eneritz Lapazaran eta Joseba Solozabal bikotea Elorrioko azokan izango da. lazko etenaldiaren ostean, Elorrioko baserritarrek erakusleihoa izango dute



AZOKA • JONE GUENETXEA

Elorrioren jairik izango ez den arren, azoka egingo dute irailaren 5ean, 10:00etatik 14:00etara. lazko etenaldiaren ostean, aurtengo herriko baserritarrek agertokia eta saltokia izango dituzte. Hiru gune atonduko dituzte jende pilaketarik ez egoteko. Abeltzainak ferialekuan egongo dira, ekoizleak aparkalekuan, eta artisauak Buskantzan. Abeltzainen gunean, Joseba Solozabal baserritarra egongo da. Baserrian bizi da, Eneritz Lapazaran

bikotekideagaz. Oraingoz ez dira baserritik bizi, baina etorkizunean horrela izatea gura lukete. Solozabalek erantzun die ANBOToren galderei.

Noiztik bizi zarete baserrian?

Beti bizi izan naiz baserrian, gurasoekin. Orain dela bost urte, bikotekiak eta biok baserria erosi genuen eta geure kontura hasi ginen.

Non duzue baserria?

Elorrioko Berrio auzoan. Baserriak Orbe Goikoa du izena.

“Pisuan hiru urtean bizi izan ginen, baina ni ez naiz konpontzen pisuan”

Bizimodua baserritik ateratzea da asmoa?

Bai. Oraingoz ez da horrela, baina etorkizunerako proiektua da. Oso gaxa da. Biok baserri giroan hazitakoak gara. Hiru urtean bizi izan ginen pisuan, baina ni

neu ez naiz konpontzen pisuan. Baserrian hobeto. Nik lan egiten dut eta bikotekidea eszedentzian dago, umea izan dugu eta. Baina biotako bat behintzat baserritik bizitzea litzateke asmoa. **Zer lantzen duzue baserrian?** Ortua eta ganadua ditugu. Ardiak eta behiak, etxerako okela izateko. Ogia ere egiten dugu. **Zelan egiten duzue ogia?** Baserrian labe zahar bat zegoen eta konpondu egin dugu. Bertan egiten dugu ogia. Oraingoz, guretzat eta lagunentzat. Ogia egiten

duten baserritarrek berba egin da ikasi dugu. Lehenengo pausoak ematen gabiltza.

Zelan ikusten duzue sektorea?

Oso txarto dago. Urte asko daramatza horrela. Pentsuak gora egin du eta bildotsak ez du ezer ere balio. Bestalde, orduak kontatzen hasten bazara, infinituak dira. Abuztuan, esate baterako, egun birako joan ginen oporretan. Hemen lan handia dago. Hori bai, gustatu egiten zaigu.

“Baserrian lan handia egiten dugu, eta egun batez lan hori guztia erakusteko aukera izaten dugu”

Ferixa Nausikoetan parte hartzen duzun lehenengo aldia da?

Lehen, aitagaz ardiak ekartzen genituen feriara. Aitak utzi egin zuen eta geu hasi ginen.

Elorriarra izanda, Ferixa Nausikoetara joatea zer da zuretzat?

Azoka herrian dagoen ganadua erakusteko erakusleiho bat da. Polita izaten da parte hartzea. Elorrioko jaiei izena ematen diena azoka bera da. Garrantzi handia dauka herrian.

Ferietan tratuak egiten dira ala hori lehen egiten zen?

Ganaduagaz tratua egiteko izaten zen, baina, orain, erakusleiho bat da gehienbat. Baserrian lan handia egiten dugu, eta egun batez lan hori erakusteko aukera izaten dugu.

Zer ematen dizue baserriko bizimoduak?

Inork ere ez dezala pentsatu diru kontu bat denik, tailerlean baserrian baino gehiago irabazten da -eta, lan gutxiago egin da. Txikitatik bizi izan dut baserriko giroa, eta sentitzen dut hauxe dela nire lekua.

Elizburu, 46-48
Tel.: 94 682 10 79
Tel./Faxa: 94 682 00 50
ELORRIO (Bizkaia)

ALBAÑILERIA
KURUTZONDO s.l.

elka 20
arkitektura

Silvia Urrutxi
Arkarazo

Errekakale 20, 2. A - Elorrio
Tel 946 231 847
699 356 607
646 955 778

EIBAR

Olabarria
AUTOBUSAK
Betsaide Kalea, 21 - ELORRIO
607 410 410


AGTZ
658756522
agurtzane

SERIGRAFIA
BOROBIL
TEXTIL
ELORRIO



MARGOTU


Margotu beheko irudia zenbaki bakoitzari dagokion kolorea errespetatuz



DIFERENTZIAK

Beheko irudien artean topatu zortzi diferentziak.





IPUINA

Beheko lerroetan idatzi ipuin labur bat irudian ikusten den igela pertsonaia nagusi lez hartuta. Gero, zure senide eta lagunei irakurri.



LEKUZ KANPO

Beheko irudi honetan, garai horregaz bat ez datozen zortzi gauza daude. Denak topatzeko gai zara?



Martxan da udako argazki lehiaketa.
Igo zure argazkiak
irailaren 20ra arte

UDAKO
7. ARGAZKI
LEHIAKETA

 **anboto**



Durangaldeko 2020ko
argazkia
IRABAZLEA



Durangaldetik kanpoko
2020ko argazkia
IRABAZLEA

2 KATEGORIA SARITUKO DIRA
-ESKUALDEKO ARGAZKIRIK ONENA
-DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

ANTOLATZAILEA

 **anboto**

LAGUNTZAILEAK


databost
informatika & telekomunikazioak


ERRIGORA


Garaiko
Landetxea

Informazio gehiago www.anboto.org webgunean



'Gelajauziak'

DANTZA ZORTOTZA :: Irailak 5

Dantza tradizionala begirada berri bategaz aurkeztuta

Cesc Gelabert koreografoaren eta Kukai Dantza Konpainiaren arteko bategitetik sortu da *Gelajauziak* proiektua. Nestor Basterretxea eskultorearen obra oinarri hartuta, hainbat euskal dantza tradizional ikertu, landu eta begirada berri bategaz aurkeztu dituzte proiektu horretan. *Gelajauziak* ikuskizunak

lengoaia koreografiko berri, bizi eta original bat aurkezten du. Eta hori ikusi eta gozatzeko aukera egongo da asteburu honetan, Zortotzan. Eubako frontoian aurkeztuko dute dantza ikuskizuna, irailaren 5ean, domekan, 20:00etan hasita. Jon Maya dantzariak zuzenduriko proiektua da *Gelajauziak*.

Irailaren 3an

ABADIÑO Muntzaratzeko jaiak
Larima disko txiki,
18:00etan, Muntzaratzen.
Cristian Piornedo eta Dani Borge (Sweet and Vicious)
DJak, 22:00etan.

MAÑARIA musika
Khantoria, 19:00etan,
Angurreta Harrobia kultur espazioan.

MAÑARIA filma
'Intocable' pelikula,
22:00etan, plazan.

Irailaren 4an

ABADIÑO Muntzaratzeko jaiak
Umeentzako puzgarriak eta jokoak, 11:00etan eta 16:00etan.
Ehky Cover Pop, 12:00etan.
Bocabeats komedia, 17:00etan eta 18:30ean.
Kontzertua: Korroxion & Uger, 22:00etan.

OTXANDIO dantza
'Soka-Dantza' dantza eta musika ikuskizuna, 19:30ean, plazan. Urduri dantza taldeak antolatuta, Otxandioko Udalaren laguntzagaz.

Irailaren 5ean

ABADIÑO Muntzaratzeko jaiak
Elvi bentrilokua, 12:30ean
Bakarrizketa Alazne Etxebarriaren eskutik, 17:30ean.
Mariatxiak eta jotak, 19:00etan.

Irailaren 8an

IZURTZA antzerkia
'Babo Royal' (Ganso&Cia konpainia), 18:00etan, plazan. Erdoitzako Amaren Eguna dela-eta antolatuta.

Irailaren 10ean

ELORRIO ikuskizuna
'Sí, fueron ellas. Un paseo por la historia del Teatro Musical' (Lara Sagastizabal & Ana Sagastizabal, 20:00etan, Arriola antzokian.

IZURTZA magia ikuskizuna
'1,2,3... Magia' (Sun Magoa), 19:00etan, plazan.

Irailaren 11n

ZALDIBAR bertsoak
Bertso saioa: Eli Pagola, Oihana Iguaran, Irune Basagoiti eta Aritz Katarain), 20:00etan, Zaldibarko Gaztetxean. Gai jartzailea: Olaia Milikua.

ZORTOTZA musika
Faraj Suleiman, 19:30ean, Boroako San Pedro basilizian. Eleizatan 2021 egitarauaren barruan.

Irailaren 12an

ZORTOTZA musika
Vivo Hirukotea, 19:00etan, Garaitondoko San Isidro basilizian. Eleizatan 2021 egitarauaren barruan.

Irailaren 17an

MAÑARIA musika
Bulegoa, 18:30ean, plazan.
Kai Nakai, 20:15ean, plazan. Lekua hartu beharra dago, irailaren 6tik 10era bitartean, 633069019 telefono zenbakira deituta.

Irailaren 18an

ZORTOTZA musika
'La Guitarra Acompañada (Beethoven, Boccherini)' Bernardo Garcia Huidobrok eskainitako kontzertua, 19:30ean, Bernagoitiko San Migel elizan. Eleizatan 2021 egitarauaren barruan.

Irailaren 19an

DURANGO ikuskizuna
'Txotxongilo bertsolariak' (Toni La Sal/Antzezkizuna Giñol taldea), 17:00etan, Aramotz auzoan.

ZORTOTZA ikuskizuna
Vocalia, 19:00etan, Etxanoko Andra Marian.

Irailaren 10etik 20ra bitartean

ZORTOTZA zinema
'Nora' filma (euskaraz, gaztelaniazko azpigituluekin) 20:00etan, Zortotza Aretoan. Sarrerak debalde eskuratu daitezke irailaren 3tik aurrera. Saio bakoitzaren ostean berbaldua eskainiko dute Lara Izagirre zuzendariak, Ane Picaza, Naiara Carmona eta Loli Astoreka aktoreek, Gaizka Borgeaud argazkilaritza zuzendariak eta Itxaso Espinal ekoizpen zuzendariak.



'Oltxiak' Durangon

Zinema

:: Durango ZUGAZA

- **Nora**
barikua 3: 19:30/22:00
zapateria 4: 18:00/20:00/20:00
domeka 5: 18:00/20:15
astelehena 6: 18:00/20:15
martitzena 7: 18:00/20:15
eguzatena 8: 18:00/20:15
- **After: Almas Perdidas**
barikua 3: 19:30/22:00
zapateria 4: 19:30/22:00
domeka 5: 19:30
astelehena 6: 18:00/20:15
martitzena 7: 18:00/20:15
eguzatena 8: 18:00/20:15

- **Maligno**
barikua 3: 19:30/22:00
zapateria 4: 17:00/19:30/22:00
domeka 5: 18:00/20:15
astelehena 6: 18:00/20:15
martitzena 7: 18:00/20:15
eguzatena 8: 18:00/20:15
- **Oltxiak**
zapateria 4: 17:00 (euskaraz)
domeka 5: 17:30 (euskaraz)

:: Zortotza ARETOA

- **A todo tren: Destino Asturias**
barikua 3: 20:00
zapateria 4: 20:00
domeka 5: 20:00
astelehena 6: 20:00

- **Spirit, indomable**
zapateria 4: 17:00
domeka 5: 17:00

2021eko 08/26tik 09/22ra

Kaixo

Hipermerkatu



EROSKI

Abadiño



Eskola



VISTO BUENO
Eskolarako mantala
0-7 bitarteko taila

P.S.P.
10,99
€/alea

bazkidea bezara**

8,99
€/alea

2€



** Kutxatik igarotzean, zure EROSKI club txartelean sartuko dizugu, berehala, erositako produktuen deskontuaren zenbatekoa. Zenbateko hori hurrengo erosketetan fruka dezakezu. Deskontu horek ez du balio "azken unitateak" idatzita adierazitako produktuetan.

Mañariko Angurreta harrobia berreskuratuko dute, bertan praktika artistiko berriak sortzeko gune bat ipinita

Angurreta Harrobia izeneko elkarteak bizi berri bat emango dio garai bateko harrobi abandonatuari. Performanceak, bat-bateko sorkuntzak eta diziplina artistiko berriak landuko dituzte bertan. Gaur egingo dute lehenengo ekitaldia. Kanthoria taldeak Joseba Sarrionandiaren ipuin bat musikatuko du



Angurreta harrobia Mañariko Aldebaraieta auzoan dago, Urkiolako Parke Naturaleko alde batean.

ARTEA • EKAITZ HERRERA

Mañariko Angurreta harrobi abandonatuari bigarren bizi bat ematea erabaki dute Durangaldeko hainbat artistak. Izen bereko elkarte sortu dute: Angurreta Harrobia. Eta, elkarte horregaz, arte garaikidea lantzeko espazio berri bat eratuko dute garai bateko harri lantegian. Victor Arrizabalaga artista eta eskultorea (Mañaria, 1957) da egitasmoaren atzean dagoen kideetarikoa bat. Azaldu duenez, Durangaldean arte garaikidea aurkezteko leku falta dagoela eta erabaki dute espazio berri sortzea. "Durangaldean baditugu museoak, badira arte galeriak. Baina praktika artistiko berriek, performance direlakoek, bat-bateko praktika efimeroek, ez dute espaziorik. Bestelako lekuak behar dituzte horretarako. Eta guri interesgarria iruditzen zitzaigun antzinako harrobi bat berreskuratzea, lekuaren memoria errekuiperatzea eta bertan helburu artistikoekin eginiko zerbait sortzea", adierazi du.

"Durangaldean baditugu museoak, badira galeriak, baina praktika artistiko berriek, performanceek, ez dute espaziorik"

Arrizabalagaren berbetan, Angurretak eskaintzen duen eremua "magikoa" da. Formatu txikiko sorkuntzak aurkeztuko dituzte bertan; adibidez, bat-bateko artea, kantaldiak zein errezitaldiak antolatuta. "Harrobiko terrazetan arte erakusketak ere egin daitezke. Artistak planteamendu bereziak bilatu behar ditu lekuari eta inguruneari erreparatuta", dio.

Kanthoriaren emanaldia

Gune artistikoa gaur bertan, irailak 3, inauguratuko dute, arratsalde ho-

netan bertan. Kanthoria taldea arduratuko da horretaz. Ander Berrojalbiz arrabita eta biolin-jotzaileak eta Maider López biola-jotzaileak osatzen duten taldeak *Herejeen alaba* emanaldia eskainiko dute. Erdi Aroko musika herrikoiaz osaturiko ikuskizuna izango da eta Ainhoa Pineda dantzaria laguntzaile izan-

Kanthoria musika taldeak eta Ainhoa Pineda dantzariak 'Herejeen alaba' ikuskizuna eskainiko dute gaur

go dute. Besteak beste, kontzertuan zehar, Joseba Sarrionandia idazle iurretarraren *Kristalezko bihotza* ipuina musikatuko dute. Ikuskizuna 19:00etan hasiko da. Gehienez ere, 100 lagunentzako lekua egongo da, eta bertaratu gura duenak 633069019 telefono zenbakira deituta erreserbatu beharko du lekua. Ekitaldia Angurreta Harrobiak eta Gerediaga elkarteak antolatu dute, Mañariko Udalagaz elkarlanean.

Bide baten hasiera

Lehenengo harria gaur ipiniko duten arren, elkarteko ki-deek aurrera begirako egitasmo gehiago antolatu gura dute. "Ekintzekin aurrera jarraitzea da asmoa, betiere gure baliabideek eta eguraldiak ahalbidetzen duten neurrian. Astiro-astiro joan gura dugu, mimoagaz", azaldu du Arrizabalagak.

Angurretako harrobi zaharra Mañariko Aldebaraieta auzoan dago. Bertatik ateratako harria entzutetsua egin zen bere marmol kutsuko tonu belztuagaitik. Harria *Mañariko grisa* lez ezagutzera ailegatu zen.



Abinara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

R.P.S. 214/06
A. Urreta
podólogo

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

BIBLIOTEKAKO EKINTZAK

IKASTURTE BERRIRAKO
EKINTZAK PRESTATZEN
GABILTZA!!!

INFO +: IRAILAK 6TIK
AURRERA
<https://labur.eus/2EZzR>

2021/2022






Ane Pikaza, pelikularen fotograma batean.

Lara Izagirreraren 'Nora' filma estreinatuko dute gaur Durangon

Euskal Herri osoan aldi berean film bat estreinatuko duten lehenengo aldia izango da

ZINEMA • A.M.

Asteburuan *Nora*, Lara Izagirre zine zuzendari zornotzarraren azken pelikula, estreinatuko dute Euskal Herriko zinema areoetan; tartean, Durango Zugaza aretoan; Lara Izagirre bera Zugazako emanaldian egongo da gaur.

Izagirreraren bigarren film luzea da *Nora*, eta heriotzaren osteko doluaren prozesuan zehar Nora protagonistak (Ane Pikaza) eginiko bidaia islatzen du. Emanaldietako ordutegia ale

honetako AGENDA atalean ikusi daiteke.

Zornotzan 10etik 20ra bitartean eskainiko dute filma, eta berbaldiak egongo dira protagonistekin

Zornotzan, egunero

Nora irailaren 10etik 20ra bitartean eskainiko dute Zornotza Aretoan, eta udalak hain-

bat saio antolatuko ditu; gainera, filmeko protagonisten berbaldiak ere izango dira. Ane Pikaza, Naiara Carmona eta Loli Astoreka aktoreek, Gaizka Borgeaud argazkilaritza zuzendariak eta Itxaso Espinal ekoizpen zuzendariak parte hartuko dute berbaldietan, Lara Izagirre zuzendariagaz batera. Sarrerak debalde eskuratu ahalko dira, gaurtik aurrera, www.zornotzaaretoa.eus webgunean edo Zelaieta zentroan.

Abel Iriondo dantzari durangarra omendu dute

Durango Kriskitin dantza taldean aritu zen urte luzez. Abuztuaren 29an hil zen, bihotzekoak jota, 55 urte gaz

DANTZA • E.K./A.B.

Martitzen arratsaldean azken agurra egin zioten Abel Iriondo dantzariari. Santa Ana elizan izan zen elizkizuna, eta, amaitu ondoren, dantzariak eta dantzazaleek omenaldi xumea egin zioten dantzari eta dantza maisuari. Izan ere, bizitza osoan zehar dantza izan zuen pasio Iriondok. Urte askoan Durango Kriskitin dantza taldeko kidea izandakoak makina bat saio gidatu du Plate-ruena Kafe Antzokian Aiko erro-

meriagaz. Nerabezaroan ekin zion dantza ibilbideari. Bere sorterriko, Elgoibarko, Haritz dantza taldean aritu zen lehenengo, Eibarko (Gipuzkoa) Kezka dantza taldeagaz gero, eta Kriskitinen azkenik. Elgoibarren (Gipuzkoa) sorturikoa izan arren, Durangon bizi zen 1996tik.

Dantzan.com atariak jasotakoaren arabera, Iriondo bihotzekoak jota hil zen, abuztuaren 29an, 55 urte zituela, bizikletan zebilela.



Abel Iriondo Aiko taldearen entsegu batean.

Gai librean

Oihukatu, elkartu, sutu!

Urtean behin elkartzen gara herriak eta haurtzaroak betirako lotu gaituzten lagunak. Jaio ginen lekuak, jaio ginen urteak eta jaio ginenetiko generoak osatzen dute kuadrilla. Zortzi neskok elkartu gara berriz. Bata han bizi dela, besteak kanpoan lan egiten duela, hara eta hona gabiltzala gainontzekook. Urtero asteburu bat, gutxienez eta ezinbestean, guretzako bakarrik da.

Abiatu gara bariku arratsaldean Kantabriara, eta hiru egunetan zortzi neska gaztek jasan dezaketan bihurtu gara domeka iluntzean.

Nor bere mikromunduan bizi da. Nork berean bilatzen ditu babesguneak, aliantzak eta espazio seguruak. Eta, hala, egunerokotasuna erraz samar darabagu aurrera. Norbere bidetik ari gara zortziok, norbere lan, lagun, indargune eta ahulgune. Elkartu garenean, baina,



Ainhoa Urien Telletxe
Idazlea

besteek egin gaituzte ahul. Matxirulo kuadrilla bat baino gehiago hurreratu zaigu, deseroso ginela jakinda puztu direnak. Kotxea aparkalekutik ateratzeko atzean jarri zaizkigu, "zuek ez zoazte inora, gure jaira etortzea nahi dugu" esanez. Gutako batek "hau biolentzia da!" oihukatu dienean, euskaldunak izateari egotzi diote erantzuna. Baten faltan bi; zapalkuntzak beti elkar gurutzatzen.

Araua betetzen ez duenak araua jasotzen du ordainetan, araua leherraratzen diote aurpegian

Zerrendatu nezake hemen kabituko ez litzatekeena. Baina hau ez da anekdotario bat, horrexetarako arriskua baitu bestela. Hau gertatutakoaren kronika erreala da, nahi beste luzatu daitekeena.

Mamia, ordea, ezagunegia egingo zaizue bati baino gehiagori. Egunero jasaten dugulako hau, zuzenean edo zeharka. Eta batzuetan, larriagotu egiten da, agerikoago egiten da. Araua betetzen ez duenak araua jasotzen du ordainetan, araua leherraratzen diote aurpegian.

Besteek ahul egin gaituztenean geure artean indartu gara. Eta beste behin konturatu gara geure artean babestu beharra dugula, kolektiboki ernegatu behar dugula, aliantzak sortu eta zapaltzen gaituena erraustu arte. Inork gutxik babestuko gaituelako, inork gutxik sinesten digulako eta gure hitza beti "ustezkoa" delako. Badugu susmopean ibiltzeaz nekatzeko garaia, arazoa erreala baita, benetakoa eta denoi gertatzen zaiguna. Biktima zein testigu bazara, ez isilik geratu, zeuri ere badagokizu jendarte guztiari dagokiona; inor ez baita neutrala martxan doan tren batean. Oihukatu, elkartu eta sutu!



Oier Luengo Redondo

Amorebieta futbol klubeko erdilaria

ZORNOTZA | 1997

“Konfiantza eta motibazioa sobera dugu eta sinestuta gaude Bigarren Mailari eutsiko diogula”

Oier Luengo Amorebieta futbol klubean hazi eta hezi den jokalaria da. 2018-2019 denboraldian Athleticen fitxatu zuen, baina abentura hark ez zuen irten berak gura izan zuen moduan, eta aurten etxera bueltatu da. Oraingo, entrenatzailearen konfiantza osoa du eta zentral zornotzarrak titular jokatu ditu partidu guztiak. Mailari eutsiko dioten konfiantza osoa du.

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Joan zen asteburuan, hirugarren jardunaldian heldu zen Amorebietaren lehenengo garaipena. Behar zenuten zuen buruan gehiago sinesteko?

Konfiantza eta motibazioa sobera dugu. Sinestuta gaude mailari eutsiko diogula. Baina garaipenak lasaitasun apur bat ematen du, bai. Lehenengo hiru partiduak galdu bagenu, irabazi ezin denaren itzal moduko bat sortu zitekeen.

Almeriaren moduko talde indartsu baten kontra hirugarren minuturako 0-1 atzetik jartzeak itzal horren atariko zirudien.

Gol horrek, jakina, partidurako genituen plan guztiak zapuztu zizkigun. Baina taldeak egoerari buelta emateko nortasuna erakutsi zuen. Gauzak ondo egiten baditugu, partidu asko irabaziko ditugula uste dugu. Jarrera horri eutsiko

diogu, partiduetan aurretik zein atzetik joan.

Zelan definituko zenuke aldagelako giroa?

Oso ona. Kuadrilla baten modukoa gara eta oso batuta gaude. Hori zelaian islatzen dela uste dut, eta esango nuke Almeriaren kontrako garaipena adibide ona dela batasun

Taldeko giroari dagokionez, Amorebieta Bigarren Mailako talderik indartsuena da nire ustez

hori erakusteko. Taldeko giroari dagokionez, Amorebieta Bigarren Mailako talderik indartsuena da nire ustez.

Bigarren B Mailan aritzetik Bigarren Mailan aritzera, zelan aldatzen da futbolari baten bizimodua?

Dezente aldatzen da. Bigarren Maila askoz ere profesionalagoa da eta denak futboletik bizi dira. Zure bizimodua ere egoera horretara egokitzen da eta futbolaria bideratuta bizi zara.

Futbola da orain zure bizitzako erdigunea?

Bai, orain, batez ere, futbolearen zentratuta nago. Hala ere, argi dut futbolari baten ibilbidea laburra dela eta horregaitik jarraitzen dut ikasten. Enpresa-zuzendaritzako ikasketak egiten nabil.

Zelan egiten zaio aurre profesionalizazioak beragaz dakarren presioari?

Pertsona bakoitzak bere modura bideratzen du presioa. Ni presioa motibazio bihurtzen ahalegintzen naiz, akuilu modura erabil-

tzen dut. Alde horretatik, lasai nago.

Liga hasierako hiru partiduak titular jokatzek eta entrenatzailearengandik konfiantza hori sentitzeak ere lagunduko dizu.

Jakina. Konfiantza horrek segurtasun handiagoa ematen dit eta inportantea da Bigarren Mailan lehenengoz jokatzeko dabilen jokalaririk batentzat. Egia esan, mailara egiten nabil oraindino. Mundu hau berria da niretzat.

Huts bakar bat ere ezin duzula egin da orain arte atera dudan ondorio nagusia. Aurrelariak oso efikazak dira

Jokoaren ikuspegitik, zer da Bigarren Mailan arretarik gehien erakarri dizuna? Jokalari askok jokoaren intentsitatea esaten dute...

Intentsitatea baino gehiago, huts bakar bat ere ezin duzula egin da Bigarren Mailatik orain arte atera dudan ondorio nagusia. Partidua detaileek erabaki dezakete. Aurrelariak oso efikazak dira eta huts bat egiten baduzu, kontuz, gola heltzeko arrisku handia dago eta. Bigarren B Mailan hori ez zen hainbeste gertatzen. Jokoaren abiadura ere aldea dago.

Zornotzara izanda, familia, lagunak... denak zure inguruan dituzu.

Horrek laguntzen du?

Bai, jakina. Oraindino ez dugu momentu txarrik izan, baina, datozenean, lagunduko didan faktorea izango da hori. Babestuta sentitzen naiz.

Jendeak zer esaten dizu kalean?

Jendea oso ilusionatuta dago, hori nabari dut. Lehen, gutxi zekiten Amorebieta non zegoen, eta orain jende askok ezagutzen du. Hori gustagarria da. Pena bakarra dute, partiduak ez direla Urritxan jokatzeko.

Athleticegaz hasi zenuen erronkak ez zuten zure gura izan zenuen moduan irten. Zeintzuk izan daitezke horren arrazoiak?

Ni pozik nago sasoi hartan hartu nituen erabaki guztiekin; lehenengo denboraldian utzita joateagaz [Amorebietan aritu zen] eta abar. Erabaki ona izan zela uste dut. Kontua da Athleticen lehiakortasun handia dagoela; denak oso onak dira eta gaxta nabarmentzea. Gainera, nire postuan jende asko dago eta denek maila handia dute. Begira Vivian zelako mailan dabilen!

Batzuek diote Zubietan Lezaman baino lan hobea egiten dabilzala azken urteetan...

Zubietan oso lan ona egiten dabilzala, ados nago, baina uste dut Lezaman pareko lana egiten dela. Bai, Sanse Bigarren Mailara igo zen iaz, baina Athleticen ere igotzeko aukerak izan zituen. Athleticen urtero ateratzen ditu bi-hiru jokalaririk lehenengo mailara igotzeko. Horri bere garrantzia eman behar zaio.

Bere ibilbidean lehenengoz, Elisabeth Luengo durangarrak arku-tiroko Europako txapelketan parte hartuko du, Kroazian

Espainiako azkenengo txapelketa bietan lehenengo eta bigarren geratu eta gero, Kroaziako hitzorduan 20 onenen artean sailkatu gura du Luengok



Elisabeth Luengo arku olinpikoagaz gezia jaurtitzeko prest, txapelketa batean.

ARKU-TIROA • JOSEBA DERTEANO

Elisabeth Luengok (Durango, 1992) bere neurri-neurriko modalitatea deskubritu du zelaiko arku-tiroan. Iaz probatu zuen lehenengoz, ia gura barik, osasun krisiak txapelketa asko bertan behera utzi zituen. "Edo hor parte hartu edo etxean

geratu, ez zegoen beste aukera askorik, eta probatzea erabaki nuen", dio. Eta zelan diren kontuak, Espainiako txapelketa hura irabazi egin zuen. Aurtengo aldian, ostera, bigarren tokian amaitu du. Emaitza horiek eta sailkapen probetan lorturiko puntuek Europako txapelke-

"Ohiko modalitateak mekanikoak dira, baina zelaikoa dinamikoa da eta gustuko dut hori"

ta baterako atea zabaltu diote, bere ibilbidean lehenengoz. Irailaren 5etik 12ra izango da, Kroazian, Porec izeneko herrian.

Gaur Madrilera joan da eta han Espainiako selekzioako kideekin elkartzeko da. Entrenamendu saio bat egin, eta asteburuan Kroaziara

bidaiatuko dute. Luengo datorren asteko eguaztenean sartuko da lehian. Bere helburua 20 onenen artean geratzea da. "Beste arkularien aurtengo puntuazioei eta Europako txapelketako iazkoei begiratuta, postu horren bueltan ibili naitekeela uste dut", adierazi du Durangoko Arkulariak taldeko arkulariak.

Modalitate bitxia

Toki beretik mugitu barik geziak distantzia jakin batera jaurtitzeko, horrela imajinatzen ditugu arkulariak, normalean. Bada, zelaiko arku-tiroa parametro horiek guztiz apurtzen dituen modalitatea da. Arkulariek, geldi egon beharrean, zirkuitu bat osatu behar dute baso batean zehar. Bidean dianak aurkitzen dituzte. Diana batzuen kokapena aurretik ezagutzen dute, baina beste batzuen ezezaguna da, bidea egin ahala deskubritzen dute. Beste berezitasun bat da dianak hainbat distantziatara egoten direla, eta sarritan jaurtiketak ez dira zuzen-zuzen horizontalean egiten, aldats gora edo aldats behera baino. "Ohiko modalitateak mekanikoak dira, baina zelaikoa dinamikoa da eta gustuko dut hori. Fisikoki ondo prestatuta egotea ere eskatzen du", azaldu du Luengok.

Jokaldia

2020/21 denboraldia. Aurten bai!

Aupa! Zer moduz? Zelan bueltan? Denok ondo eta topera espero dut. Gehienak martxan hasita daude. Denboraldi-aurrearen erdi-erdian gaude. Gainera, aurten, aurrekoan baino gogo eta ilusio gehiagorekin, zeren eta egoera hobean gaude, bakunak medio. Azken berria Eskola Kirola ere bere osotasunean burutu ahal izango dela izanik, oraindik lehen baino indar gehiagorekin hasi gara. Aurrera!

Aurten bai! Aurten Gure taldeen partiduak ikusteko eta jokoan aritzeko aukerak ditugu berriro, eta hasteko... nesken Euskal Kopa! Lointek Gernika, Kutxabank Araski eta IDK Euskotren. 3 partidu, gaur, bihar eta etzi, Landakon. Mailako handiko taldeak koparen bila. Gozatu!



Unai Zamalloa
Zubiaurre
Saskibaloia

"Aurten bai! Aurten Tabirakoren urtea izango dela uste dut. Gazteak oinarri izanda topera arituko dira."

"Zornotzan beheko taldeak eratzeko eta indartzeko, Naia Fernandez arituko da berriro kirol zuzendari legez"

Aurten bai! Aurten Tabirakoren urtea izango dela uste dut. Kirol mailan, taldeak berrituta eta oinarri sendoak jartzeko helburuarekin hasten dira. Berriro, jokalaria gazteak oinarri izanda, topera arituko dira. Zuzendaritza talde berritua, Klubaren eta Durangoko saskibaloia indarrak eraberritzeko helburua hartuta, gogor ari da lanean. Aurrera!

Aurten bai! Zornotzan Talde nagusiak plantilla benetan txukuna eta gogorra eratu du. Lana eta lana izango dira bereak. Klubean, ostera, beheko taldeak eratzeko eta indartzeko, Naia Fernandez arituko da berriro Kirol Zuzendari legez, Jon Nuñezekin eta Ane Portillarekin. Gogor egin!

Eta beste denok ere aurrera! Aurten beste aurrerapauso bat eman dugu. Zaindu gaitezen. Gozatu dagigun!

DURANGALDE

Gure Kristo Atxartekoa

Atxarteko ermita erreferentziatzko lekua da mendizaleentzat. Lekua, hainbat kondairaren iturri ere bada. Diotenez, ermita lamiak uxatzeko eraiki zuten. Izan ere, antzina, olioa Arabatik ekartzen zutenek Atxartetik igaro behar izaten zuten ezinbestean. Beldurrez pasatzen ziren, bertan sorginak egon ohi zirelako, kateekin zaratak egiten.



KO TXOKOAK!



Oromiño Pozubaltza

Argazki honek Thaiandiako opor batzuetan harturiko argazkia dirudi. Baina ez. Lekutxo hau gure eskualdean dago. Iurretako Oromiño auzoan. Errekak bainatzeko aproposa den gune bat sortzen du bere ibilbidean: Pozubaltza. Udan asko dira ur kolorearen tentaldiari eutsi ezinda bainua hartzen dutenak.

Botikak

BARIKUA, 3 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A.
Abasolo 2 - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 4 · 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga
3 - **IURRETA**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

CAMPILLO Montevideo
etorb. 24 - **DURANGO**

**URIZAR GABIOLA 2 - BERRIZ
SARRIA** Sasikoa 17, **DURANGO**

UNAMUNZAGA Muruetatorre
2C - **DURANGO**

GAZTELUMENDI J.A.
Abasolo 2 - **DURANGO**

DE DIEGO Intxaurren
22. - **DURANGO**

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA
Berrio-Otxoa 6 - **ELORRIO**

LOPEZ DE ARETXAGA
Torresolo 4 - **ABADIÑO**

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

GUTIERREZ, IBAN Txiki
Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 5 · 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA 6 · 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurren
22. - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 7 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 8 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 9 · 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga
3 - **IURRETA**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Zorionak, **Egoitz (859. alea)**!
Hamabostean behin zotz egiten
dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia
eskuratze txartela gura duzunean
jaso dezakezu lurretako gure egoitzan:
Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia



Zorionak, **Oihan!** Muxu potolo
bat Haizea, Izar eta Izein partez.
Paaaa!



Zorionak, **Ane!** 9 belarri tirekada
eta oso ondo pasau zure egune!
Mosu handi bat etxekuen partez!



Zorionak, **Martin!** Lau urte
egin ditu Legorreko artistak!
Mosu potolo bat maite zaitugun
guztion partez!



Amaiurrek 3 urte egin dauz
eta **Manexek** 4 egingo dauz
zapatuan. Zorionak Izar, Aran eta
etxeko danen partez!



Zorionak, **Tasio!** 6 urte. Egun
polita izan eta muxu potolo bat
etxekoan partez.



Etxeko txikixek be gora ta gora!
Zorionak **Jurgi** eta **Suhar!**
Maite zaituegu!



Pedrotxuren errezeta: gogoa,
gustu ona eta fundamentua. Horrela
gozo-gozo irtengo da errezeta. Beraz,
ekarri Alvario batzuk errezetan bus-
teko. Eta ez ahaztu Cava. Zorionak
familiarren eta lagunaren partez!



93 urte joan dira Boroako Biesko base-
rrian jaio zinenetik. Harrezkero zenbat
irrada, zenbat behar, zenbat barre eta
negar. Zorionak ama, amama, birrama-
ma. Beste urte asko bete dagizuzala
holantxik, agintzen, zeure betiko eran.



Abuztuen 17xen urteik egin eta
ondiño zuk inbitau biherreko tra-
guen zain jarraitzen dogu. 29xek
noz ospatukuz, ba, Armendia?



Zorionak, **Eder!** Egun polita eta
alaia izan zure aita Unai, ama
Izaskun, arreba Luzia, lehengusu
Iraiti eta Endika, aitteite Karlos eta
Jose Ramon, amama Enkarna eta
Begoña eta beste senideen partez!



Abuztuaren 31n **Asier Echeva-
rria Jaingak** urteak egin zituen.
Egun on bat pasa izana espero
dugu. Yosu eta Carmen.



Zorionak, **Amets Mendieta.**
Abuztuaren 20an zure lehen
urtetxoa familian ospatu genuen.
Jarraitu beti bezain irrifartxu.



Dantzan hobeto dakin artajorran
baino.

Eskela



**Maria Teresa
Basabe Amezua**



"Ez da hiltzen joaten dena,
ahazten dena bakarrik"

SOINUA MUSIKA IKASTEGIA Matrikula zabalik!

Estimulazio musikala
4 urtetik aurrera eta talde txikietan

PIANOA, AKORDEOIA, TRIKITIA,
GITARRA, GITARRA ELEKTRIKOA, KORUA



Kalebarrria, 1 - 1 Durango
946 030 338 - soinua@euskalnet.net

“Heels Dance-ak sozialki rolak apurtzen laguntzen du; mutil askok egiten dute”

Ane Perezek 'Heels Dance' estiloa dantzaten du, takoiekin egiten dena. Madrilen zenbait ekitaldi eta kontzertutan dantzatu da eta bide horretan jarraitzea du etorkizuneko plana



**Ane Perez
Acedo 'AnePe'**

**Heels Dance
egiten du**

ELORRIO | 1998

ELORRIO • AITZIBER BASAURI

Ane Perezek 13 urte hartu zuen lehenengo dantza eskola, eta 18 urte Madrilera joan zen dantza ikasketak egitera. 'Hobby' lez hasi zena ogibide bihurtzea lortu du, AnePe izen artistikoagaz. 2017an hasi zen 'Heels Dance' praktikatzen, takoiekin egiten den dantza estiloa. Orduan, eskola bakarra zegoen Madril. "Youtuben bideoak ikusita ezagutzen nuen, baina Euskal Herrian ezezaguna zen oraindino. Ez zegoen oso garatua", dio elorriarrak. Dantza estilo berria den arren, indartsu datorrela uste du.

Heels Dance praktikatzea arriskutsua izango da.

12 zentimetroko takoiekin dantzatzeko da eta arriskutsua da, bai. Akrobaziak, itzulipurdiak, saltoak eta mugimendu arinak egitean, batez ere. Takoirik barik dantzatzeko ikasi behar da lehenengo, eta gero, apurka, heels-ekin probatu, takoiekin. Garrantzitsua gorputza eta hankak indartzea da, orkatilak, bikiak eta koadrizepsak, lesioak saihesteko.

Asko entrenatu behar da?

Orduak eta orduak sartu behar dira. Takoiekin ibiltzen ikasi behar da lehenengo, gero mugimendu

Takoia ipintzerakoan, gorputzak beste jarrera bat hartzen du. Dantzatzeko era guztiz aldatzen da

konplexuagoak entrenatzen hasteko. Garrantzitsua oreka da, gorputz osoa kontziente eta indartsu egoteko. Detailak oso garrantzitsuak dira, eta pausoen arteko transizioak asko zaindu behar dira, dantza dotore eta garbi ikusi dadin.

Zein da 'Heels Dance'-aren ekarpena? Takoia ipintzerakoan, gorputzak beste jarrera bat hartzen du, dantzatzeko era guztiz aldatzen da: hankak luze sentitzen dira, belak ia tolestu barik, gerria eta sorbaldak solte eta sabela gogor. Sozialki rolak apurtzen laguntzen du. Mutil askok dantzatzeko dute, eta normalizatzen laguntzen du. Takoia ez dira nesken kontua bakarrik.

Zerk erakarrita aukeratu zenuen dantza estilo hau?

Erronkak asko gustatzen zaizkit, eta probatzea erabaki nuen. Dantzatzeko modu oso sentsuala da eta takoiekin aritzeak, edozein intentzio eman daitekeen arren, askotan badu sedukzio puntu bat. Garaikidean eta Comercial Dance estiloan trebatu naiz, eta biak bateratzeko aukera paregabea ikusi nuen Heels-ean. Nire espezialitatea da, baina beste dantza estiloekin ere jarraitzen dut.

Dantzatzeko oso era sentsuala da eta takoiekin aritzeak badu sedukzio puntu bat askotan

Non du jatorria 'Heels Dance'-ak?

AEBetan sortu zen. 1980tik 2000 bitartera hartu zuen indarra, Los Angeles eta New York hirietan. Espainian oso berandu egin zen ezagun, 2017an. Euskal Herrian ia ez dago praktikatzen aukerarik oraindino. Jendeak ezagutzea, dantzatzeko eta disfrutatzea dut helburu.

Zer da zuretzat dantza? Zenbat ordu eskaintzen dizkizu?

Dantza bizimodu bat da, kultura bat. Balioak, diziplina, konpromisoa, konstantzia, exijentzia, pasioa eta indarra eman dizkit. Oso gogorra da, buruhauste asko ematen dit, baina dantzarik barik gatx nuke dudana bizimodua ateratzea. Formakuntza prozesuan, goizero 4-5 ordu ematen ditut dantzan, forma fisikoa lantzen, eta balleta, elastikotasuna, anatomia eta koreografiak praktikatzen. Arratsaldetan dantza eskolak ematen ditut. Sormen prozesua bestelakoa da: ideiak eta mugimendu berriak garatu, musika, outfit-a...

Lau-hortza

Ainhoa Olaso
Sopelana
Behargina



Bestela gezurretan ariko nintzateke

Erabili eta botatzen diren kamera bat erostekotan egon nintzen ekainean, hogeita lau karrete duen bat. Eta agian momentu eder bakoitzean argazki bat aterako nuke, ez dakit, baina imajinatzen dut baietz. Eta gero gau batean tirantetan amaitu nuen Bilbon, eta hurrengoan Tabiran, Santa Anaraino. Eta ezezaguna pianoa jotzen nire etxean. Opor egunak. Eta inoizko uztailek lainotsuena bizi genuen. Eta Katy Jurado. Baina ez zen hau gogoratu nahi nuen. Gogoratu nahi ditut txoriak jatetxeetako zapaletan, eta Anarirenak Mendiolan. Ehun eta hogeita euro balio du PCR proba batek klinika pribatuan! Mixtape bat, aspaldiko lagunarentzat. AHTko obretan hil zen gizona, eta kontzertu bat Elorrion. Eta gero, Atxondoko akanpada. Astearteko kontzertua Sorginolan. Salmorejo, ogia eta gazta pixka bat Antsorasen eta mmmm bieirak Aramotzen. Ia bihotzekoak emanda, malekoian morreoak eta udako gidoiari bira traszendental. (Bakardade astunetan banandu genuen isiltasuna orduan) Baina Iruñetik ere lan egin dugu, esan nahi dut, lan eta sortu. Dibertitu ere bai, esan nahi dut. Zigiluen prezioa igo da, eta, egia esan, ez dakit inoiz gustuko diseinua duen bat jarri dudana postaletan. Nik kantatu eta dantza egiten du mendiak. Eta gero berrehun gradu kanpin-denda barruan. Kontzertuetan aukietan jarrita dantza egiteko estilo berria asmatu dugu azkenean. Itogina sukaldako zapaian eta alaaa, Nacho Vegasen beste kanta batekin paralelismoa. Eta azkenik, atentatu emozional bat: iraila. Etor dadila kafe dosia igotzeko garaia, eta udazkena, edo etorri behar den gutzia.

**Estetika
gida**

anboto

NUKLEO
ileapaindegia
946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia

Ile-apaindegia

IUNIK
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491